FORU DEKRETUA, Nafarroako Foru Komunitaterako Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onesten duena.

## ZIOEN AZALPENA

1

Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak indarra hartzearen ondorioz, aldaketa sakonak gertatu ziren doako laguntza juridikoaren (lehengo pobreziaren onura) eskubidearen aitorpenean, baliabideen askitasunik eza frogatzen dutenentzat. Lege horrek eskubidea aitortzeko prozeduraren desjudizializazioaren alde egiten du, organo kolegiatu administratiboen esku uzten baitu, doako laguntza juridikoaren batzordeen esku, hain zuzen ere. Hala ere, espedienteen tramitazioa abokatuen elkargoen aurretiko lanean oinarritzen da, haiek betetzen baitituzte, orientazio juridikoko zerbitzuen bidez, honako lan hauek: eskabideen ohiko tramitazioari ekin, asmoak aztertu eta behin-behineko izendapen edo ukapenak erabaki.

Lege horren lehen xedapen gehigarriak ezartzen du zein diren Estatuaren erabateko eskumeneko aginduak, eta zein oinarrizko legeria osatzen dutenak; autonomia erkidegoek, beren estatutuetako eskumenez baliatuz, haiek osatu eta garatzeko arauak eman ditzakete, betiere bere gain hartu badituzte Justizia Administrazioa baliabidez hornitzeko arloko eskumenak ondorioekin betetzea.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 60.1 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz, Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartu zuen Justizia Administrazioaren arloko eskumenen titulartasuna; aurreikuspen hori gauzatzeko, maiatzaren 14ko 813/1999 Errege Dekretua onetsi zen, Justizia Administrazioa baliabide material eta pertsonalez hornitzearen arloko eginkizunak eta zerbitzuak Estatutik Nafarroako Foru Komunitatera eskualdatzeari buruzkoa, ondorioak 1999ko urriaren 1ean izan zituena.

2

Nafarroako Foru Komunitateak bere gain hartutako eskumenak baliatuz, doako laguntza juridikoaren erregelamenduak onesten joan dira Nafarroako Foru Komunitaterako, etengabeko arau-aldaketei egokitzeko helburuz. Azkena, eta orain indarra duena, martxoaren 21eko 17/2012 Foru Dekretuak onetsitako erregelamendua da.

Argitaratu zenetik 8 urte baino gehixeago igaro direla, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitaterako Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua egokitzea denbora honetan gertatu diren lege-erreformetara. Erreforma horietako batzuk oso garrantzitsuak dira urtarrilaren 10eko 1/1996 Legeak ezarritako doako laguntza juridikoaren sistemarako, eta horien artean nabarmentzekoak dira 3/2013 Errege Lege-dekretua, otsailaren 22koa, Justizia Administrazioaren arloko tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituena; 41/2015 Legea, urriaren 5ekoa, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duena zigor arloko justizia arintzeko eta prozesuko bermeak indartzeko; 42/2015 Legea, urriaren 5ekoa, Prozedura Zibilaren Legea aldatzen duena; 2/2017 Legea, ekainaren 21ekoa, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legea aldatzen duena, eta 3/2018 Legea, ekainaren 11koa,

Europar Batasunean zigor arloko ebazpenak elkarri aitortzeari buruzko azaroaren 20ko 23/2014 Legea aldatzen duena Europako Ikerketa Agindua arautzeko.

Aipatutako arauen bidez egindako aldaketek doako justizia sistemaren funtsezko alderdiei eragiten diete, hala nola doako laguntza juridikorako eskubidearen hedapena, ex lege onuradunen eremu subjektiboaren hedapena, doako laguntza juridikoaren batzordeen osaera, gatazkak bitartekaritzaren edo gatazkak konpontzeko judizioz kanpoko beste bitarteko batzuen mende jartzeko aukerari buruzko informazioa, legeak berariaz debekatzen ez dituen kasuetan eta eskubidearen eduki materialtzat hartzen denean, edo ofizioz izendatutako profesionalak ordezteko aukera.

Beste alde batetik, indartu egiten da prestazio-jarduera hori nahitaezko zerbitzu publikoa dela, eta bermatu egiten da botere publikoek behar bezala ordainduko dutela, aitortuta zerbitzu hori ematen duten profesionalek dagozkien kalte-ordainak jasoko dituztela.

Doako laguntza juridikoaren sistemari eragiten dio, gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko urriaren 26ko 2016/1919 (EB) Zuzentarauak, zigor arloko prozesuetan susmagarriei eta akusatuei eta atxilotzeko Europako agindu-prozedura baten bidez bilatutako pertsonei doako laguntza juridikoa emateari buruzkoak.

Nahiz eta Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen xedapen guztiak ez izan oinarrizko legeria, testu arauemaileak dakartzan aldaketek halako garrantzia dute non, legegintzako teknikarekin lotutako arrazoiengatik, komeni baita araudi berri bat egitea doako justiziaren egungo sisteman aurrera eginen duena, urte hauetan atzemandako akatsak zuzendu, eta zerbitzu publikoaren prestazio bermatzaileago, bizkorrago eta eraginkorragoa ahalbidetuko duena.

3

Otsailaren 22ko 3/2013 Errege Lege-dekretuak, Justizia Administrazioaren eremuan tasen araubidea eta doako laguntza juridikoaren sistema aldatzen dituenak, aldaketak egin dizkio Estatuko legeari, eta Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea erreformatzen duen urriaren 5eko 42/2015 Legeak ere bai, neurri txikiagoan. Aldaketa horiek eskubidearen eremu subjektiboa handitu dute eta pertsona gehiagorengana hedatu da, batez ere kolektibo behartsuen edo kalteberenengana.

Nafarroako Foru Komunitateko doako justiziaren sistemak baditu jada orientazio juridiko espezializaturako zenbait zerbitzu 2002. urteaz geroztik, hala nola Emakumeentzako Laguntza Zerbitzua edo atzerritarren gaietarako eta espetxe arloko letradu-laguntza. Hala ere, horien inplementazioa zenbait kasutan autonomia erkidegoko arau sektorialen bitartez egin zen, doako laguntza juridikoaren arauditik kanpo baina zuzeneko eragina izanik araudi horretan (horren adibidea dugu uztailaren 2ko 22/2002 Legea, indarkeria sexistaren aurkako neurriak hartzeari buruzkoa), eta beste batzuetan hitzarmenez, atzerritarren gaietarako letradu-laguntzaren edo espetxe arloko orientazio juridikoko zerbitzuaren kasuetan bezala.

Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendu berriak ez ditu orientazio juridiko espezializatuko zerbitzu horiek bakarrik jasotzen; horiez gain, ofiziozko txanda espezializatuak sortzea aurreikusten du, bai eta berariazko guardien araubidea ere atzerritartasunaren eta espetxe gaietako laguntzaren arloetan. Horrela erregelamendu berriak osatu egiten ditu Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legean dauden aurreikuspenak.

Errealitate juridiko konplexua eta gure gizarteak duen arau mordoa kontuan izanik, laguntza espezializatuak, zalantzarik gabe, herritarrei ematen zaien zerbitzuaren kalitatea hobetuko du.

Helburu hori lortzeko, erregelamenduak arreta berezia jartzen dio zerbitzua eman behar duten profesionalen prestakuntzari. Ildo horretan, profesionalak txandetan sartzeko betekizun orokorrez gain, prestakuntzaren inguruko betekizun osagarriak ezartzen ahalko ditu Nafarroako Gobernuan justiziaren arloko eskumena duen departamentuak, kontseilariaren foru aginduz, eta Nafarroako Foru Komunitateko profesionalen elkargoek nahitaez bete beharko dituzte.

Prestakuntza osagarriak erreferentzia egiten ahalko die lehendik badiren edo sortzen diren txanda guztiei edo haietakoren bati. Prestakuntza horren inplementazioan beste eragile juridiko batzuen aholkularitza jasotzen ahalko da, eta beti entzunen zaie profesionalen elkargoei.

Bestalde, guardiako zerbitzuei dagokienez, erregelamendu berriak abiapuntu duen sistemak koherentzia, berdintasun eta lurralde-kohesio handiagoak ditu, hala zerbitzu-prestazioaren aldetik nola ekonomiaren aldetik. Kalte-ordain finkoa kobratzen da guardiako egun bakoitzeko, guardian emandako laguntza-zerbitzuak edozein izanda ere.

4

Urriaren 15eko 42/2015 Legeak, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legea erreformatzen duenak, antolaketaren berrikuntza gisa dakar doako laguntza juridikoaren batzordeen osaera. Fiskaltzak jada ez du ordezkaririk batzordeetan, nahiz eta lehenago berak edukitzen zuen batzordeetako lehendakaritza. Hori dela eta, aldatu egin behar da Nafarroako Laguntza Juridikoaren Batzordearen osaera, eta haren lehendakaritzaren araubide berria ezarri.

5

Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 31. artikuluak betebehar profesional bat ezartzen du funtzio prozesaleko jardun hobeari begira, zeina, letradu-defentsaren kasuan, prozesuan beren interesak defendatuko dituen profesional bat beren kargura izendatzeko baliabide ekonomikorik ez dutenen oinarrizko eskubide jakin batzuk betetzea baitu helburu. Betebehar horrek esan nahi du profesionalek laguntza eta ordezkaritza eskaini behar dituztela benetan eta eraginkortasunez, harik eta prozesua amaitu arte kasuan kasuko auzialdian, eta epaia betearazi arte, hala behar denean; eta badu bere isla foru erregelamendu berrian, letradu-jardunaren batasunaren printzipio gidariaren pean, elkargoek txandak eta zerbitzuak antolatzeko duten autonomiaren errespetuarekin uztartuta.

6

Foru dekretu honek antolaketaren arloko berrikuntzak biltzen ditu, doako laguntza juridikoaren espedienteen kudeaketari eta izapidetzeari eragiten dietenak, helburu izanik eraginkortasun eta bizkortasun handiagoak lortzea eskubidearen aitorpenean. Berrikuntza horiek espediente elektronikoari eta Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren osaerari eragiten diete, batez ere.

7

Foru dekretu honek egiten duen erreformaren bidez zuzendu egin nahi dira urte hauetan atzemandako akatsak, emandako zerbitzuen egiaztapenari eta justifikazioari dagokienez, bereziki, bai eta profesionalen elkargoei ordaindutako diru kopuruen geroko erregularizazioari ere, sistema egokituz doako justizia kudeatzeko aplikazio informatikoaren funtzionamenduari, sistema horrek ahalbidetzen baitu ordainketak egiaztatu, justifikatu eta erregularizatzea ordaindu aurretik, elkargoek orain arte eskatu izan zaizkien ziurtagiriak aurkeztu beharrik izan gabe –guardiako zerbitzuaren kasuan izan ezik– igorpenak egin ahal izateko, zeren ziurtagiri horietako batzuk zuzenean lortzen baitira aplikazio informatikotik.

8

Foru dekretu honen VI. kapituluak doako peritu-laguntzaren araudia biltzen du. Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren uztailaren 8ko 158/2014 Foru Aginduaren edukia jasotzen du, eta, beste berrikuntza batzuen artean, aukera ematen du hiru aurrekontu eskatzeko, hasierako aurreikuspen ekonomikoa atzera botatzen denean, IV-c eranskinean konpentsazio ekonomikorako ezarritako oinarrietan aurreikusten diren zenbatekoak gainditzeagatik, edo aurkeztutako aurrekontua ezesten denean antiekonomikoa izateagatik; hau da, aurreikusitako zenbatespen ekonomikoa handiagoa denean auziaren munta baino.

9

Legegintzako teknikaren arloko arrazoiengatik eta arau-sakabanatzea saihesteko, testu berri bat egitea erabaki da, zeinak indarrik gabe uzten baititu Nafarroako Foru Komunitaterako Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua, maiatzaren 21eko 17/2012 Foru Dekretuaren bidez onetsia, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren uztailaren 8ko 158/2014 Foru Agindua, dohaineko peritu-laguntza arautzen duena.

Horrenbestez, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak proposaturik, Nafarroako Kontseiluarekin bat, eta Nafarroako Gobernuak 20..(e)ko ......aren ..(e)ko bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Artikulu bakarra. Nafarroako Foru Komunitaterako Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onestea.

Onesten da Nafarroako Foru Komunitaterako Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua. Haren testua foru dekretu honi erantsi zaio.

## XEDAPEN IRAGANKORRA.

Xedapen iragankor bakarra. Ondorio ekonomikoak

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko hiruhileko naturaleko lehen egunetik aurrera izanen ditu ondorio ekonomikoak.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe gelditzen dira martxoaren 21eko 17/2012 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitaterako Doako Laguntza Juridikoaren Erregelamendua onesten duena, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren uztailaren 8ko 158/2014 Foru Agindua, dohaineko peritu-laguntza arautzen duena.

## AZKEN XEDAPENAK.

Azken xedapenetako lehena. Konpentsazio ekonomikorako modulu eta oinarriak berrikusi eta eguneratzea.

1. Foru dekretu honen bidez onetsitako Erregelamenduaren III. eranskinean eta IV-c eranskinean ageri diren konpentsazio ekonomikoaren moduluak eta oinarriak, bai eta I., II., III. eta IV. eranskinetan jasotako eredu normalizatuak ere, justiziaren arloko eskumena duen kontseilariaren foru agindu bidez berrikusten ahalko dira.

Hala ere, III. eta IV-c eranskinetan jasotako diru kopuruak hiru urtean behin berrikusten ahalko dira kasuan kasuko elkargo profesionalak hala eskatuz gero.

2. Xedapen honetan aipatzen diren konpentsazio ekonomikoaren moduluen eta oinarrien berrikuspenerako beharrezkoa izanen da, betiere, ukitutako profesionalen elkargoei aldez aurretik entzutea.

Azken xedapenetako bigarrena. Baremoak egokitzea.

Ahalmena ematen zaio justiziaren arloko eskumena duen kontseilariari foru dekretu honen bidez onetsitako Erregelamenduaren III. eranskinean ezartzen diren prozedurak prozesuei buruzko legerian zehazten diren prozeduretara egokitzeko, eranskin horretan aipatzen ez direnetara. Aurretik profesionalen elkargoei entzun behar die.

Azken xedapenetako hirugarrena. Arau garapena

Justiziaren arloko eskumena duen kontseilariari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu eta xedapenak emateko.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarra hartzea.

Foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean hartuko du indarra.

Iruñean, Nafarroako Gobernuko lehendakaria, María Chivite Navascués.- Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria. Eduardo Santos Itoiz.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATERAKO DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOAREN ERREGELAMENDUA

# I. KAPITULUA

## Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Xedea.

1. Foru dekretu honen xedea da honako hauek arautzea Nafarroako Foru Komunitatean: doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko prozedura, horretan esku hartzen duten administrazio organoen antolaketa eta funtzionamendua, eta esku hartzen duten profesionalei beren jarduketen ordain ekonomikoa emateko prozedura.

2. Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortuz gero, haren titularrak Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 6. artikuluan aipatzen diren prestazioak jasotzen ahalko ditu, edo, hala badagokio, mugaz haraindiko auzietan, arau beraren VIII. kapituluan aipatzen direnak.

Eskubidea aitortzeko, aintzat hartu beharko dira kalteberatasun bereziko faktoreak dituzten pertsonen behar espezifikoak, Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legean xedatutakoarekin bat.

### 2. artikulua. Aplikazio-eremua.

Foru dekretu hau doako laguntza juridikorako eskubidearen aitorpenerako aplikatuko da, Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako organo judizialetan bideratzen diren era guztietako prozesuei dagokienez eta administrazio prozedurei dagokienez, edozein izanda administrazio eskuduna; betiere, prozesu eta prozedura horiek doako laguntza juridikorako eskubidearen eremuan sartuta egon behar dute legez.

Foru dekretu honetako xedapenak gatazkak ebazteko prozesu alternatibo edo osagarriei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen onurak prozesu horietara hedatzen badira edo aplikatzekoa den araudiak hala aurreikusten badu.

# II. KAPITULUA

Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordearen antolaketa eta funtzionamendua

3. artikulua. Lurralde-eremua eta eskumenak.

1. Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea Iruñean eratuko da, eta Nafarroaren lurralde osoan izanen du eskumena.

2. Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak, bere lurralde-eremuan, doako laguntza juridikoari buruzko Estatuko araudian eta erregelamendu honetan aurreikusten diren eskumenak baliatuko ditu.

4. artikulua. Osaera eta kideen izendapena.

1. Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordean honako kide hauek izanen dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko abokatu elkargo guztiak ordezkatzen dituen abokatu elkargoko dekanoa, edo hark eskuorde izendatzen duen letradua.

c) Iruñeko Prokuradoreen Elkargoko dekanoa, edo hark eskuorde izendatzen duen prokuradorea.

d) Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko aholkulari juridiko bat, zerbitzua atxikia duen departamentuko titularrak izendatua.

e) A mailako funtzionario bat, zuzenbideko graduduna, justiziaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusikoa, zuzendaritza nagusi hori atxikia duen departamentuko kontseilariak izendatua.

2. Justiziaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilariak erabakiko du batzordeko kideetatik zein izanen den burua eta zein idazkaria.

3. Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeko kideak denbora mugarik gabe izendatuko dira. Behar duenak beste pertsona bat izendatzen duenean utziko dute batzordea, edo batzordeko kide izatea ekarri zien kargua uzten dutenean. Azken kasu horretan, kargua uzten duen pertsonak eskuorde izendatutakoek ere batzordea utziko dute.

4. Batzordearen lanen jarraitutasuna eta funtzionamendu ona bermatze aldera, izendapenen ardura duten erakunde eta organoek ordezko bat ere izendatuko dute batzordeko kide bakoitzeko, batzordeko burua barne. Bai titularrek zein ordezkoek jarduten ahalko dute.

5. Emakumeek eta gizonek ordezkaritza orekatua izanen dute Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordean, bat etorriz Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen 16. artikuluan xedatutakoarekin.

5. artikulua. Mendekotasun organikoa, sostengu administratiboa eta egoitza.

Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea, organigramari dagokionez, justizia arloko eskumenak dituen zuzendaritza nagusiaren

menpe egonen da eta bertan izanen du egoitza. Hartatik hartuko ditu aritzeko behar duen sostengu administratiboa eta laguntza teknikoa.

6. artikulua. Doako justiziako zerbitzuei buruzko informazioa.

1. Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak doako justiziako zerbitzuei atxikita dauden jarduneko elkargokideen zerrendak edukiko ditu. Zerrendetan agertuko dira haien helbide profesionalak eta, kasua bada, espezializazioak, jurisdikzio-ordenen edo zuzenbide-arloen arabera.

Batzordearen egoitzan ikusgai jarriko dira abokatu elkargoetako orientazio juridikoko zerbitzuen funtzionamendu arauak, helbideak eta jendearentzako ordutegiak.

2. Aurreko apartatuan aipatzen den informazioa doako justiziako zerbitzuak erabili nahi dituen edonoren eskura egonen da.

7. artikulua. Funtzionamendua.

1. Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordearen jarduna honako hauek zuzenduko dute: Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legea, foru dekretu hau, eta organo kolegiatuetarako Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak jasotzen dituen arauak; eta, izaera osagarriarekin, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

2. Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea hamabostean behin bilduko da, gutxienez. Gai kopurua dela-eta beharrezkoa denean bilkura berezietarako dei egiten ahalko du.

8. artikulua. Kalte-ordaina bileretara joategatik.

1. Batzordeko kideek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko funtzionarioak direnek izan ezik, Batzordearen bilera bakoitzera joateagatik, idazkariak behar bezala egiaztaturik, 100 euroko kalte-ordain osoa hartuko dute. Zenbateko hori eguneratzen ahalko da justiziaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilariaren foru aginduaren bidez.

2. Inoiz ez dira jasoko urtean hogeita bost kalte-ordain baino gehiago. Batzordera joaten den ordezkoak bakarrik hartuko du kalte-ordaina horretarako eskubidea duen titularraren ordez joaten denean.

9. artikulua. Eginkizunak.

Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legean ezarritakoarekin bat:

a) Doako laguntza juridikorako eskubidea onartu edo ukatzea, profesionalen elkargoek aurretik harturiko erabakiak berretsiz edo aldatuz.

b) Eskubidea bertan behera uztea, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 19. artikuluan aurreikusiriko inguruabarrak agertzen direnean.

c) Doako laguntza juridikoaren eskabideak izapidetzen diren bitartean beharrezkotzat jotzen diren egiaztapenak egitea eta argibideak lortzea, eta, bereziki, kasuan kasuko zerga administrazioari eskatzea eskatzaileek alegaturiko zerga datuak egiazkoak direla berrets dezala. Informazio hori bitarteko telematikoak erabiliz eskatu eta jasoko da, lehentasunez.

d) Eskubide hori behin betikoz onartu edo ukatzen duten ebazpenak aurkaratzeko idazkia kasuan kasuko epaitegi edo auzitegitik hartu edo hara eramatea.

e) Letradu defendatzaileak aurkezturiko eskabidea onartezina dela jakinarazteko izapideak egitea.

f) Orientazio juridikoko zerbitzuen jarduketak gainbegiratzea eta profesionalen elkargoekiko harremanetarako organo gisa jardutea, doako laguntza juridikoko zerbitzuek eginiko kexa edo salaketak bideratzeko, ekinbide horiek zuzenean elkargoetan aurkeztu ez direnean.

g) Doako justiziarako eskubidearen onuradunaren egoera ekonomikoak hobera egin duen deklaratzea eta organo judizialari jakinaraztea, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 36. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

h) Izendatutako profesionala ordezteko eskaerari buruz erabakitzea, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 21 bis artikuluaren 4. apartatuan azaltzen den kasuan.

i) Indarra duten arauek esleitzen dizkioten gainerako eginkizun guztiak.

10. artikulua. Kudeaketa administratiboa.

1. Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko prozeduraren kudeaketa administratiboa egiteko, aplikazio informatikoak erabiliko dira: profesionalen elkargoenak eta justizia arloan eskumena duen departamentuarenak.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, aplikazio informatikoen bateragarritasuna eta elkarreragingarritasuna bermatuko dira.

3. Nafarroako Doako Justiziaren Batzordeak Nafarroako Foru Komunitatean diharduten abokatu elkargoekin eta Prokuradoreen Elkargoarekin izaten dituen komunikazioetan beti erabiliko dira bitarteko telematikoak.

## III. KAPITULUA

### Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko prozedura.

11. artikulua. Abiaraztea.

1. Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko prozedura interesdunak eskaturik hasiko da beti –erregelamendu honek artikulu honen 6. apartatuan eta 17. artikuluan xedaturiko kasuetan izan ezik-, eskabidearen eredu normalizatua aurkeztuz.

2. Eskabidearekin batera, erregelamendu honen I. eranskinean ageri diren datuak aurkeztu behar dira –batez ere ondareari, egoera ekonomikoari eta zergei buruzkoak, beharrezkoak baitira doako laguntza juridikorako eskubidearen onuradun izatea egiaztatzeko–, bai eta ezkontide edo izatezko bikotekidearenak eta familia unitateko gainerako kideenak ere, salbu eta eskatzaileak artikulu honen hirugarren apartatuan aipatzen den berariazko baimena ematen duenean.

3. Eskabide ereduan jasoko da artikulu honen bigarren apartatuan aipatzen diren pertsonen adostasuna, hartara abokatuen elkargoek eta, hala badagokio, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak kasuan kasuko administrazioan zuzenean eskatu ahal ditzaten behar dituzten informazio edo ziurtagiri telematikoak eta eskabideari erantsi beharrekoak. Horrek ez du galaraziko Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak duen eskubidea.

4. Aurreko apartatuan aipatutako baimenari buruz beharrezkoa den informazioa jarriko da eskabide eredu normalizatuan, eskatzailea baimen horren nondik norakoez ohartarazteko. Nolanahi ere, eskatzaileak berariaz ukatzen ahalko du datuak lortzeko baimena, eta halakoetan berak aurkeztu beharko du beharrezkoa den dokumentazioa.

5. Eskabide ereduan beti jasoko da eskatzaileak baimena ematen duela Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak emandako aldeko ebazpena eskatzailearen historia sozialean sartzeko.

6. Baldin eta, eskabidearen dataren aurreko sei hilabeteetan, eskatzaileari beste auziren baterako aitortu bazaio doako laguntza juridikorako eskubidea, ez da aurkeztu beharko erregelamendu honen I. eranskinean aipatzen den dokumentazioa, betiere eskatzailearen inguruabar pertsonaletan aldaketa nabarmenik izan ez bada.

Apartatu honetan xedatutakoa ez da aplikatuko baldin eta, aurreko sei hilabeteetan, eskatzaileak auzitan aritzeko baliabideak dituen ala ez kontuan hartu gabe aitortu badio eskubidea Doako Laguntza Juridikorako Batzordeak, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 2. artikuluan aurreikusten diren kasuak gertatu direlako.

7. Prozedura penaletan, ikertuari epaitegian laguntzen dion letradu defendatzailea, edo auziaz arduratzen dena, ahaleginduko da harexek gehienez ere hamar eguneko epean doako laguntza juridikoaren eskaera izapidetu dezan. Epea iraganda, interesdunak ez badu eskaerarik izapidetu, haren letradu defendatzaileak edo prozesuko ordezkariak egiten ahalko du; betiere, txosten arrazoitu baten bidez frogatu beharko du ikertuak ez duela eskaerarik izapidetu eta ez duela nahiko baliabide ekonomikorik.

8. Inprimakiak toki hauetan banatuko dira: egoitza judizialetan, abokatuen elkargoetako orientazio juridikoko zerbitzuetan eta Nafarroako Doako Justiziaren Batzordearen egoitzan. Eskabidearen inprimakia bide telematikotik ere lortzen ahalko da, Nafarroako Gobernuaren eta profesionalen elkargoen webguneetan.

12. artikulua. Eskabidea aurkeztea.

1. Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 12. artikuluan ezarritakoarekin bat, eskabideak –behar bezala sinatuta– eta aginduzko agiriak prozesu nagusiaz arduratu behar duen epaitegia edo auzitegia non dagoen, bertako abokatuen elkargoko orientazio juridikoko zerbitzuetan aurkeztuko dira, edo eskatzailearen helbideko epaitegian. Azken kasu horretan, organo judizialak berehala igorriko du eskabidea lurraldean eskudun den abokatuen elkargora.

2. Eskabidea, erantsi beharreko dokumentazioarekin batera, paperean edo bide telematikotik aurkezten ahalko da, deusetan eragotzi gabe foru dekretu honen 11. artikuluko datuak lagatzeko baimena ematea; kasu horretan, abokatuen elkargoek eskatuko dituzte behar diren datuak, eta eskubidearen aitorpenari buruzko espedientera bilduko dituzte.

3. Doako laguntza juridikorako eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak behar duen informazioa lor dezan kasuan kasuko administrazioarengandik, eskatzaileek aurkeztu edo alegatu dituzten datuak egiaztatze aldera.

4. Prozedura penaletan eta atzerritarrak kanporatzeari edo asilo eskaerei buruzko prozedura administratiboetan, abokatuen elkargoetako orientazio juridikoko zerbitzuek uste badute ezin dela egiaztatu I. eranskinean eskatutako dokumentazioa, abokatu bat izendatuko dute behin-behinean, eta, hala behar denean, Prokuradoreen Elkargoari prokuradorea izendatzeko eskatuko diote, eta espedientea Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari bidaliko diote, interesdunak emandako datuekin eta elkargoak edo izendatutako profesionalak egindako kudeaketen egiaztagiriekin batera, eskaeraren tramitazioak aurrera egin dezan.

5. Behar diren agiriak biltzeko modurik ez dagoela egiaztatzen den kasu horietan eta Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 2. artikuluko d), g), h) eta i) letretan eta lege testu beraren bigarren xedapen gehigarrian jasotako kasuetan izan ezik, ezin izanen zaizkio Batzordeari aurkeztu behar bezala beteta ez dauden espedienteak, eta abokatuen elkargoak foru dekretu honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko du.

6. Prozedura judiziala hasia bada edo epe luzaezina badago, abokatuen elkargoek doako laguntza juridikoaren eskatzaileei ohartaraziko diete organo eskudunari eskaera aurkeztu behar zaiola prozesua edo epea eten dezan doako laguntza juridikoaren eskaera ebatzi arte. Dena den, behin ohartarazpena eginda, soilik eskatzailearen ardura izanen da organo judizialari eskaera hori aurkeztea.

7. Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 2.g) artikuluko pertsonek artikulu horretako kasuetan abiarazten dituzten espedienteak lehentasunez izapidetuko dira, bai eta atzerritarren kanporatzeak, itzulketak eta itzulerak betearazteko espedienteak ere; edo bestelakoak, baldin eta organo judizialak edo prozesuko alderdietako edozeinek presa dagoela frogatzen badu, arrazoiak azalduz.

13. artikulua. Akatsak zuzentzea.

1. Abokatuen elkargoetako orientazio juridikoko zerbitzuek egiaztatu eginen dute aurkeztutako dokumentazioa, eta, hura nahikoa ez dela edo eskabideak akatsak dituela antzematen badute, errekerimendua eginen diote interesdunari, argi azalduz zer akats antzeman diren, 10 eguneko epean zuzendu ditzan; halaber, eskatzaileari ohartaraziko zaio akatsak zuzendu ezean eskaera bertan behera utzi duela pentsatuko dela eta besterik gabe eskaera artxibatu eginen dela.

2. Akatsak epean zuzentzen ez badira, abokatuen elkargoak eskaera artxibatuko du eta horren berri emanen dio prozesuaz arduratzen den organo judizialari, behar diren ondorioetarako, baldin eta hark prozesua eteteko agindu badu.

3. Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak funtsezko akats formalak antzematen baditu espedientearen tramitazioan, kasuan kasuko orientazio juridikoko zerbitzuari itzuliko dio espedientea, akatsak zuzen ditzan.

14. artikulua. Behin-behineko izendapenak.

1. Eskabidea aztertu eta, hala behar denean, akatsak zuzendu ondotik, orientazio juridikoko zerbitzuak uste badu eskatzaileak betetzen dituela doako laguntza juridikorako eskubidea lortzeko legez ezarritako baldintzak, abokatua izendatuko du behin-behinean, 15 eguneko epean, gehienez. Epe hori Doako Laguntza Juridikorako Legearen 15. artikuluan ezarrita dago. Behin-behineko izendapen hori eskatzaileari jakinaraziko zaio eta aldi berean Prokuradoreen Elkargoari helaraziko, hurrengo hiru eguneko epean prokuradorea izenda dezan prokuradore batek esku hartzea aginduzkoa bada edo, aginduzkoa ez izan arren, organo judizialak berariaz hala eskatzen badu auto arrazoitu baten bitartez.

Prokuradoreen Elkargoak berehala jakinaraziko dio izendapena abokatuen elkargoari, espedientean jasorik geldi dadin, eta eskatzaileari ere jakinaraziko dio.

2. Profesionalen izendapenak eginda, abokatuen elkargoak hiru eguneko epea izanen du, bide telematikoa erabiliz, espediente osoa helarazteko Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari, bai eta egindako izendapenak ere, egiaztapenak egiteko eta eskaera behin betiko ebazteko.

3. Emakume batek indarkeria sexistaren biktima izatea salatzen duenean, profesionalen elkargoek behar diren neurriak ezarriko dituzte lehenbailehen izenda dadin, behin-behinean, judizio azkarretako ikustaldietan edo agerraldietan esku hartu behar duen letradu defendatzailea, baita prokuradorea ere, hark esku-hartzea aginduzkoa bada.

4. Interesdunari behin-behineko izendapena jakinarazten zaionean, jakinarazpen agirian ohartarazi beharko zaio doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzen ez badiote berak ordaindu beharko dituela behin-behinean izendatutako profesionalek benetan egindako zerbitzuek sorrarazten dituzten zerbitzu-sariak eta eskubide ekonomikoak. (3. eta 4. apartatuen ordena alderantzikatzen da)

15. artikulua. Behin-behineko izendapenik ez egitea.

1. Abokatuen elkargoak ez du letraduaren behin-behineko izendapenik eginen honako kasu hauetan:

a) Letraduaren esku-hartzea aginduzkoa ez denean, salbu eta ebazpen arrazoituaren bidezko errekerimendu judiziala dagoenean prozesuko alderdien arteko berdintasuna bermatzeko.

b) Elkargoak uste duenean eskatzaileak ez dituela betetzen doako justiziaren onura lortzeko baldintzak.

c) Elkargoak egiaztatzen duenean eskubidea aitortzeko eskaera pertsona berak asmo berarekin aurretik aurkeztutako beste baten berdina dela eta hura jada Doako Laguntza Juridikorako Batzordeak izapidetu edo ebatzi zuela, honako kasu honetan izan ezik: eskubidea aitortu zenetik 2 urteko epea iraganda prozedura hasi gabe dagoenean.

d) Elkargoak lurralde-eskumenik eza egiaztatzen duenean eskubidea aitortzeko eskaerari dagokionez.

e) Demandatzaileak demanda aurkeztu ondotik egiten duenean eskaera, edo demandatuak demandari erantzun ondotik egiten duenean, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 8. artikuluan adierazitako kasuetan izan ezik.

f) Doako laguntza juridikoa eskatzeko arrazoia den uzia argi eta garbi defendaezina denean, edo funtsik gabekoa, edo, errepikatuaren errepikatuaz, nabarmenki abusuzkoa.

Errepikatuaren errepikatuaz nabarmenki abusuzkotzat jotzen diren eskaeren kasuetan, izendapenik ez egitea arrazoitu egin beharko da.

g) Eskaera Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 5. artikuluaren eremuan dagoenean. Halakoetan, abokatuen elkargoak espedientea Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari helaraziko dio, interesdunak eskubidea salbuespenez aitor diezaioten alegatu dituen arrazoiekin batera.

2. Artikulu honen lehen apartatuan azaldutako kasuetan, abokatuen elkargoak, 5 eguneko epean, eskatzaileari adieraziko dio ez duela behin-behineko abokatu-izendapenik egin, eta aldi berean eskabidea Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari helaraziko dio 3 eguneko epean, egiaztapenerako eta ebazpenerako. (Gehitua)

16. artikulua. Eskaera errepikatzea.

1. Abokatuen elkargoak eskaera jasotzen duenetik edo, kasua bada, akatsak zuzentzen direnetik hasita 15 eguneko epean ez badu aurreko artikuluetan ezarritako jarduketetatik bat bera ere egiten, eskatzaileak berriro egiten ahalko du eskaera, Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari zuzenduta.

2. Eskaera errepikatuz gero, Batzordeak elkargoari eskatuko dio berehala bidal diezaiola espedientea, eskaerari buruzko txosten bat erantsita, eta aldi berean aginduko dio, bidezkoa denean, behin-behinean izenda dezala letradu defendatzailea, baita, hala behar denean, prozesuko ordezkaria ere.

17. artikulua. Profesionala izendatzeko errekerimendu judiziala.

1. Kasuaren inguruabarrak edo presa kontuan izanda, prozesuaz arduratzen den organo judizialak edo espedientea izapidetzen ari den administrazio-organoak uste badu, prozesu- edo administrazio-legeriarekin bat, berehala bermatu behar direla alderdien defentsarako eta ordezkaritzarako eskubideak, eta alderdiren batek adierazten badu ez duela baliabide ekonomiko nahikorik –hori laguntza juridikorako eskubidea lortzeko baldintza denean–, ebazpen arrazoitua emanen du profesionalen elkargoei errekerimendua egiteko, behin-behinean letradu defendatzailea izenda dezaten, bai eta prozesuko ordezkaria ere, aginduzkoa izanez gero, ez badituzte oraindik izendapen horiek egin.

2. Justizia Administrazioaren letraduak edo administrazio-organoak ebazpen horren berri emanen die profesionalen elkargoei, bide ahalik eta lasterrena erabiliz, eta ondoren eskabidea izapidetuko da foru dekretu honetan xedatutakoari jarraituz.

3. Profesionalen behin-behineko izendapena egin eta gero Batzordeak edo organo judizialak doako justiziaren onura ukatzen duen kasuetan, Batzordeak horren berri emanen die eskatzaileari eta izendatutako profesionalei, ebazpen horren arabera jokatu ahal dezaten.

18. artikulua. Batzordeak prozedura instruitzea.

1. Espedientea jasota, Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak 30 eguneko epea izanen du egiaztapenak egiteko, eskatzaileak emandako datuak zuzenak eta egiazkoak direla baieztatze aldera beharrezkoak jotzen duen informazioa lortzeko eta ebazpena emateko, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Halaber, kasuan kasuko administrazioei eskatzen ahalko die berrets ditzatela eskabidearekin batera aurkezturiko agirietan dauden datu ekonomikoak, ebazpena emateko nahitaezkoa dela iruditzen bazaio.

Informazio eskaera Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeko idazkariak eginen du, lehentasunez, bitarteko telematikoak erabiliz, eta beti errespetatu beharko da datuak babesteko araudia.

Halaber, Batzordeak erabakitzen ahalko du eskatzaileari errekerimendua egitea, hamar eguneko epea emanez eskabidea baloratzeko ezinbestekoak diren datuak eta agiriak aurkez ditzan, eta ohartaraziko dio errekerimenduari erantzun ezean eskabidea artxibatzen ahalko dela.

2. Gainera, artikulu honen lehen apartatuan ezarritako epean, Batzordeak entzuten ahalko die auzian eskatzailearen kontra diharduten alderdiei edo eskatzaileak haien kontra akzioa baliarazi nahi duen alderdiei, ezagunak badira eta eskatzailearen benetako egoera ekonomikoari buruzko datuak eman ditzaketela uste bada. Alderdi horiek 30 egunak iragan baino lehen agertzen ez badira, Batzordeak espedientea izapidetzen jarraituko du.

3. Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko prozeduraren instrukzio fasea azkartasun eta laburtasun printzipioek zuzenduko dute betiere.

4. Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak lehenetsiko ditu kalteberatasun bereziko egoeran dauden pertsonen eskaerak eta adingabeenak eta adimen desgaitasuna edo gaixotasun mentala dutenenak abusu edo tratu txarren biktima direnean.

19. artikulua. Ebazpena.

1. Behar diren egiaztapenak egindakoan, Batzordeak ebazpen bat emanen du doako laguntza juridikorako eskubidea onartu edo ukatuko duena edo, kasua bada, eskabidearen artxiboa berretsi edo ukatuko duena, gehienez ere 30 eguneko epean, espediente osoa hartzen denetik hasita.

Batzordeak, espedientea ez dagoela osorik iritziz gero, errekerimendua egiten ahalko dio interesdunari, argi adieraziz zer akats atzeman dituen, 10 eguneko epean zuzendu ditzan; eskatzaileari ohartaraziko zaio akatsak zuzendu ezean, atzera egin duelakoan besterik gabe eskabidea artxibatu eginen dela. (GEHITUA)

2. Halaber, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 6. artikuluaren 10. apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, eskatzaileak frogatzen badu ondorio askotarako errenta adierazle publikoa baino diru-sarrera txikiagoak dituela, inguruabar hori berariaz aipatuko da eskubidea aitortzen dion ebazpenean.

3. Ebazpenean eskubidea aitortuz gero, berretsi eginen dira elkargoek behin-behinean egindako profesionalen izendapenak, eta, horrenbestez, behin-behinean izendatutako letradu defendatzaileari eta prozesuko ordezkariari legozkiekeen onura ekonomikoei begira ere eskubidea aitortuko da. Izendapen horiek egin gabe badaude, Batzordeak elkargoei berehala eskatuko die izenda ditzatela eskubidearen titularra defendatu eta, hala badagokio, haren ordezkari izan behar duten profesionalak.

4. Ebazpenak eskubidea ukatzen badu, behin-behinean egindako izendapenak indarrik gabe geldituko dira, eta horrenbestez, eskatzaileak ordaindu beharko ditu behin-behinean izendatutako profesionalek benetan egindako zerbitzuek sorrarazi dituzten zerbitzu-sariak eta eskubide ekonomikoak. Hori gorabehera, eskatzaileak nahi dituen profesionalak izendatzen ahalko ditu.

Letradu defendatzaileak inoiz ezin izanen dio zerbitzu-sarien ordainketa erreklamatu ofizioz izendatutako prokuradoreari, ez eta aurkako alderdiarenari ere.

5.- Eskubidea eskatu duen pertsonak gerora eskubidearen aitorpena lortzen badu, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 8. artikuluan xedatutakoarekin bat, ebazpenak ez du atzeraeraginezko ondoriorik izanen.

20. artikulua. Jakinarazpenak eta komunikazioak.

Batzordeko idazkariak hiru eguneko epe berean jakinaraziko die ebazpena eskatzaileari, abokatuen elkargoari eta, hala behar denean, prokuradoreenari, bai eta alderdi interesdunei ere, eta ebazpenaren berri emanen dio prozesuaz arduratzen den epaitegi edo auzitegiari, edo tokian tokiko epaile dekanoari, prozesua hasi gabe badago.

Jakinarazpen eta komunikazioak egiteko, lehentasunez bitarteko telematikoak erabiliko dira.

21. artikulua. Ebazpen espresurik ez egotea.

1. Espedientea instruitu eta ebazteko ezarritako 30 eguneko epea iraganik, Batzordeak espresuki ebatzi ez badu, berretsita geldituko dira abokatuen elkargoek aurrez hartutako erabakiak, eta kasu bakoitzean dagozkien ondorioak izanen dituzte.

2. Profesionalen elkargoek ere ez badute erabakirik hartu ezarritako epean, Batzordeak epean espresuki ebatzi ez izanak bide emanen du eskaera baietsitzat jotzeko. Halakoetan, interesdunak, prozesuaz arduratzen den organo judizialak edo, eskaera prozesua hasi baino lehen egin bazen, eskumena duen epaitegi dekanoko titularrak, eskubidea deklaratuko du bere osotasunean eta profesionalen elkargoei errekerimendua eginen die letradu defendatzailea izendatzeko, bai eta, aginduzkoa bada, prozesuko ordezkaria ere.

3. Eskaeraren ustezko baiespena edo ezespena aurkaratu ahal izan dadin, aplikatzekoa izanen da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoa.

22. artikulua. Eskubidea errebokatzea.

1. Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 19. artikuluaren lehen apartatuan adierazitako inguruabarrak gertatzen direnean –hau da, doako laguntza juridikoaren eskatzaileek datu okerrak edo faltsuak ematea edo datuak ezkutatzea, datu horiek erabakigarriak izanik eskubidea aitortzeko–, Batzordeak, interesdunari hamar eguneko entzunaldia emanda, eskubidea errebokatuko du. Ondorio horietarako, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak ofizioz berrikusteko ahalak izanen ditu, eta eskubidea aitortu zuen ebazpena deuseza edo deuseztagarria dela deklaratzen ahalko du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106. eta 107. artikuluek ezarritako eran.

2. Eskubidea errebokatu ondoren, haren aitorpenaren onuradunek ordaindu beharko dituzte ofizioz izendatutako profesionalek sorrarazitako zerbitzu-sariak eta eskubide ekonomikoak, bai eta aitorpenaren ondorioz lortutako gainerako prestazioen kostua ere; hori guztia, alde batera utzi gabe egozten ahal zaizkien bestelako erantzukizunak, halakorik bada.

3. Aurreko apartatuan ezarritakoaren ondorioetarako, zerbitzu-sariak jaso dituzten profesional jarduleek profesionalen elkargoari itzuli beharko dizkiote beren izendapenaren ondorioz jasotako diru kopuruak, eta elkargoak, berriz, Administrazioari itzuli beharko dizkio. Itzulketa hori konpentsazio bidez egiten ahalko da.

Administrazio eskudunak ordaindutako diru kopuruen itzulketa eskatzen ahalko die eskatzaileei, betiere, Diru-bilketaren Erregelamendu Orokorrean ezarritako premiamendu prozedura administratiboaren bidez.

4. Prestazioaren onuradunak baliarazitako uziaz arduratzen den organo judizialak, ofizioz nahiz Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak eskaturik, eskubide-abusua, ausarkeria, fede gaiztoa edo lege-iruzurra antzematen badu haren egikaritzean, hala adieraziko du prozesuari amaiera ematen dion ebazpenean, eta errebokatu eginen du doako laguntza juridikoaren onura.

Errebokatze hori Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari jakinaraziko zaio artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako ondorioetarako.

23. artikulua. Ebazpena aurkaratzea.

Batzordearen ebazpenak behin betiko aitortzen edo ukatzen badu eskatutako eskubidea, edo errebokatzen badu aldez aurretik aitortutako eskubidea, edo onuradunaren egoera ekonomikoak hobera egin duela deklaratzen badu, hura aurkaratzen ahalko da Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 20. artikuluan ezarritako moduan.

24. artikulua. Dirua itzultzea.

1.Prozesuari amaiera ematen dion ebazpenak kostuez erabakitzen badu doako laguntza juridikorako eskubidearen aitorpena lortu duenaren alde edo legez eskubide hori aitortua duenaren alde, aurkako alderdiak ordaindu beharko ditu haren defentsaren kostuak.

Horrelakoetan, organo judizialaren ordainketa-agindua, aurkako alderdia defentsa- eta ordezkaritza-jarduketen kostuak ordaintzera kondenatzearen ondoriozko zenbatekoei dagokiena, prozesuan esku hartu duen ofiziozko profesionalaren alde eginen da, eta hark kasuan kasuko profesionalen elkargoari jakinarazi beharko dio, hamar eguneko epean, zenbateko horiek kobratu dituela. Ordainketa-agindua eman ondoren, Justizia Administrazioaren letraduak horren jakitun jarriko ditu profesionalen elkargoa eta kasuan kasuko administrazio publikoa. Administrazio publikoak jada kalte-ordaina eman badio ofiziozko profesionalari, hark elkargo profesionalari itzuli beharko dio diru kopuru hori.

2. Prozesuari amaiera ematen dion ebazpenean kostuak ordaintzera kondenatzen badute doako laguntza juridikorako eskubidearen aitorpena lortu duena edo eskubide hori legez aitortua duena, berak ordaindu beharko ditu bere defentsak eta aurkako alderdiarenak sorrarazitako kostuak baldin eta prozesua amaitu eta hurrengo hiru urteetan bere egoera ekonomikoak hobera egiten badu. Bitartean etenda egonen da Kode Zibilaren 1967. artikuluko preskripzioa.

Egoera ekonomikoak hobera egin duela uste izanen da diru-sarrera eta bestelako baliabide ekonomiko guztiek Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 3. artikuluan ezarritako moduluaren bikoitza gainditzen badute edo lege horri jarraituz eskubidea aitortzerakoan kontuan hartu ziren inguruabar eta baldintzak funtsean aldatzen badira.

Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari dagokio adieraztea onuradunaren egoera ekonomikoak hobera egin duen, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 36.2 artikuluan

xedatutakoarekin bat. Hark ematen duen ebazpena lege horren 20. artikuluan adierazitako moduan aurkaratzen ahalko da.

3. Prozesuari amaiera ematen dion ebazpenak kostuei buruz berariaz erabakitzen ez duenean, doako justiziaren onuradunak irabazten badu auzian, berak ordaindu beharko ditu bere defentsak sorrarazitako kostuak, auzian lortu duen zenbatekoaren herena gainditzen ez badute. Zenbateko hori gainditzen badute, heren horretara murriztuko dira, partidak hainbanatuz.

## IV. KAPITULUA

## Doako letradu-laguntzako, defentsako eta ordezkaritzako zerbitzuen antolaketa

### 25. artikulua. Elkargoek zerbitzuak kudeatzea.

1. Abokatuen eta prokuradoreen elkargoetako gobernu batzarrek arautu eta antolatuko dituzte doako orientazio juridikoko, letradu-laguntzako eta defentsa eta ordezkaritzako zerbitzuak, printzipio hauek aintzat hartuz: efizientzia, funtzionaltasuna, bizkortasuna, eskuragarritasuna, kalitatea, gardentasuna, txanden banaketa objektibo eta zuzena eta jurisdikzio-ordenen araberako espezializazioa.

2. Ofiziozko profesionalak izendatzeko bitartekoak eta txandak banatzeko sistemak publikoak izanen dira elkargokide guztientzat eta doako laguntza juridikorako eskubidearen eskatzaileek kontsultatzen ahalko dituzte.

3. Profesionalen elkargoek doako laguntza juridikoko zerbitzuen funtzionamendu zuzena zainduko dute eta behar diren neurri guztiak hartuko dituzte herritarrek kalitatezko prestazio profesionala jasotzeko duten eskubidea bermatzeko.

4. Arautze hori foru dekretu honetan jasotako irizpide orokorretan oinarrituko da.

### 26. artikulua. Orientazio juridikoko zerbitzuak.

1. Abokatu elkargoek nahitaez orientazio juridikoko zerbitzu bana izan behar dute, herritarrei zuzendua. Gobernu batzarrak esleitzen dizkion eginkizunez gain, zerbitzu horrek honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Doako laguntza juridikoaren eskatzaileei aldez aurretik aholku ematea, haien asmoak orientatu eta bideratzeko.

b) Argibideak ematea doako laguntza juridikorako eskubidearen eduki materialaz, hura aitortzeko baldintzez eta haren iraupenaz.

c) Doako laguntza juridikoaren onura onartzen diotela nahiz ukatzen diotela, eskatzaileari bere eskubide eta betebeharrei buruzko informazioa ematea.

d) Interesdunei eskaera egiteko inprimakiak ematea, eta betetzen laguntzea, beharrezkoa bada.

e) Eskatzaileei eskabidearekin batera aurkeztu behar dituzten agiriak eta horien akats eta hutsuneen zuzenketa eskatzea. Halaber jakinarazi beharko die baimena eman ahal dutela, elkargoa eta, kasua bada, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordea izan daitezen haien datuak eskuratzen dituztenak.

f) Eskaeran jasotako uzi nagusia aztertzea, ea argi eta garbi defendaezina ote den, edo funtsik gabekoa, edo eskubide-abusua.

g) Gatazkak ebazteko prozesu judizialaren ordezko sistemei edo sistema osagarriei buruz informatzea.

2. Zerbitzu hau doakoa izanen da doako laguntza juridikorako eskubidearen aitorpena eskatzen duten pertsonentzat.

3. Abokatuen elkargoek behar diren neurriak hartuko dituzte orientazio juridikoko zerbitzuak herritarren eskura jartzeko eta non dauden eta zer eginkizun dituzten egokiro ezagutarazteko.

4. Abokatuen elkargoek justiziaren arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuari eta Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari informazioa emanen diete orientazio juridikoko zerbitzuen antolaketaz, funtzionamendu arauez, egoitzaz eta herritarrentzako ordutegiez, eta edozein aldaketaren berri emanen diete, herritarrei arreta eraginkorra eskaintzea helburu.

5. Behar adina espezialistak osatuko dituzte orientazio juridikoko zerbitzuak, zenbat auzitan lagundu behar duten eta zenbat zerbitzu espezializatu sortu diren kontuan hartuta. Abokatuen elkargoek urtero izendatuko dituzte orientazio juridikoko zerbitzuko kideak, prestakuntza eta espezializazioa irizpide dituztela.

27. artikulua. Orientazio juridikoko zerbitzu espezializatuak.

1. Delituaren Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legean ezarritakoaren arabera, laguntza espezializatua bermatu behar zaie kalteberatasun bereziko faktoreak dituzten pertsonen kolektiboei, eta zerbitzu espezializatu hauek arituko dira horretan:

a) Genero indarkeriaren arloko orientazio juridikoko zerbitzua, indarkeria sexistaren edozein adierazpenen biktima diren emakumeei laguntzeko, Emakumeen Kontrako Indarkeriari Aurre Egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean ezarritako moduan.

Letradu-laguntza emanen zaie, halaber, salerosketaren biktima diren emakumeei, adingabeei eta adimen desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonei, abusu edo tratu txarren biktima direnean.

Zerbitzu hau, elkargoen egoitzetan ez ezik, genero indarkeria pairatzen duten emakumeei laguntza integrala emateko taldeen egoitzetan ere emanen da. Talde horiek Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren mendekoak dira.

b) Orientazio eta laguntza juridikoko zerbitzua pertsona hauentzat: desgaitasuna dutenentzat –azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duenak, 4. artikuluan aipatzen dituen horientzat–, eta haiek beren kargu dituzten pertsonentzat, osasun kontuekin edo desgaitasunarekin lotura duen prozesu batean jarduten dutenean haien izenean eta haien interesen alde.

2. Aurreko apartatuan aipatutako zerbitzuez gain, abokatuen elkargo batek bere barrutian espetxeren bat badu edo Gobernuaren Ordezkaritzaren egoitza badu, zerbitzu espezializatu hauek sortzen ahalko ditu:

a) Espetxeko orientazio juridikoko zerbitzua, espetxeko presoei laguntzeko.

Zerbitzu hau foru dekretu honen 26. artikuluan ezarritako moduan emanen da, eta elkargoak espetxearekin adostuko du zerbitzua emateko maiztasuna, beharren arabera.

b) Atzerritarren gaietarako orientazio juridikoko zerbitzua. Espainian dauden atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haiek gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoan ezarritako prozeduretarako eta izapideetarako aholkularitza eskainiko du.

Zerbitzu honetan, kasuan kasuko elkargoak egokitzat jotzen dituen hizkuntzetan emanen da informazioa, hizkera egokituan, eta, behar izanez gero, interprete edo itzultzaile bat eskatzen ahalko zaio justiziaren eta migrazio politiken arloetan eskumena duen departamentuari, bai eta kulturen arteko bitartekari bat ere.

28. artikulua. Guardiako txanda.

1. Abokatuen elkargoek etengabeko guardiako txanda bat antolatuko dute, 24 orduetan lantokian egotekoa edo bertaratzeko prest egotekoa. Txikiak izateagatik horren beharrik ez duten elkargoak salbuetsiko dira. Letradu bakarraren printzipioak eta laguntza egiazko eta eraginkorraren printzipioak zuzenduko dute txanden antolaketa profesionalen elkargoetan.

Aurreko apartatuan xedatutakoa ez zaie aplikatuko zinpekoen epaimahaiaren bidezko prozedurei edo konplexutasun berezia izateagatik bestelako letradu-laguntza espezializatuaren beharra dutenei.

2. Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei berehalako letradu-laguntza eman behar zaie pairatu duten indarkeria zuzeneko edo zeharkako kausa duten prozesu eta prozedura guztietan, eskatzen duten unetik aurrera. Horretarako, abokatuen elkargoek genero indarkeriaren biktimen defentsan espezializatutako guardien araubidea ezarriko dute.

3. Atzerritar immigratzaileei berehalako letradu-laguntza emateko xedez, atzerritartasunaren osagaia garrantzitsua den kasuetan, Estatuko eta nazioarteko legeriak atzerritarrei aitortzen dizkien eskubideak zaintze aldera, abokatuen elkargoek atzerritarren gaietarako berariazko guardia-txanda bat antolatuko dute.

4. Espetxeko orientazio juridikoko zerbitzuaren ezaugarri bereziak direla-eta, zerbitzu hori guardiako txanda espezializatutzat joko da guardiako txandaren ondorioetarako.

5. Etengabeko guardiako txandarik ez duten elkargoetan horrelako bat ezartzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko organo eskudunak onetsi beharko du, elkargoen proposamenez, eta kontuan hartuta egunean batez beste zenbat asistentzia egin diren aurreko ekitaldian.

6. Abokatuen elkargoek justiziaren arloan eskumena duen departamentuari jakinaraziko diote guardiako txandak antolatu dituztela, eta zehaztuko dute zenbat letradu dauden izena emanda txanda bakoitzean, zenbatek osatzen duten guardiako zerbitzua, eta bakoitzaren araubidea eta maiztasuna. Jakinarazpen hori urtero eginen da, eta txanden antolaketan zerbait aldatzen den guztietan.

29. artikulua. Ofiziozko txanda.

1. Foru dekretu honen 30. artikuluan xedatutakoa ezertan ukatu gabe, abokatuen eta prokuradoreen elkargoek banaketa zuzenerako sistemak ezarriko dituzte ofiziozko letradu defendatzaileak eta prozesuko ordezkariak izendatzeko. Sistema horiek publikoak izanen dira abokatu eta prokuradore guztientzat, eta doako laguntza juridikoaren eskatzaileek kontsultatzen ahalko dituzte.

2. Gaien eta jurisdikzio-ordenen araberako txanda edo zerrenda orokorrez gainera, hauek izanen dira laguntza juridikoko txanda espezializatuak:

a) Letradu-laguntza genero indarkeriaren biktimentzat, pertsonen salerosketaren biktimentzat, eta adingabeentzat eta adimen desgaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonentzat, abusu edo tratu txarren biktima direnean.

b) Letradu-laguntza adingabeentzat zigor arloko jurisdikzioan.

c) Letradu-laguntza atzerritarrentzat.

d) Letradu-laguntza espetxeko presoentzat.

e) Elkargoek ezar ditzaketen gainerakoak, justiziaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuak onetsiz gero.

3. Foru dekretu honen 30. artikuluan azaldutako kasuetan izan ezik, elkargo bakoitzak ofiziozko txandarako kudeatzen dituen zerrendetan izena emanda dauden profesionalak izendatuko ditu.

Zerrendak jurisdikzio-ordenen arabera antolatuko dira, eta gainera zerrenda bana eginen da txanda espezializatuetarako.

30. artikulua. Letradu-jardunaren batasuna.

**1.** *Zilegi izanen da abokatu edo prokuradore bat izendatzea prozesu-legeen arabera auzian defentsa edo ordezkaritza beraren pean jardun behar duten eskatzaile guztientzat.*

Profesionalei uko egiteko edo profesionalak desenkusatzeko arrazoiak gertatzen diren kasuetan izan ezik, profesionalak beren eginkizunetan arituko dira harik eta dena delako auzialdian prozedura amaitu arte, eta epaien betearazpenean ere arituko dira, baldin eta epaia eman eta bi urteko epearen barnean hasten bada betearazpena.

2. Pertsona bat genero indarkeriaren biktima izatearen ondorioz abiarazten diren prozesuetan, une oro letradu zuzendari berak lagunduko dio biktimari, betiere era horretan defentsarako eskubidea behar bezala bermatzen bazaio. Horretarako kontuan hartuko dira inguruabar hauek: zein txanda edo espezialitateri dagoen atxikita profesional hori, eta planteatu beharreko akzioek lotura zuzena eta estua izatea biktima izate horrekin.

Biktima hiltzen bada, jaraunsleek ere (edo legezko ordezkariak, jaraunsleek gaitasunik ez dutenean) eskubide hori bera izanen dute kaltedun gisa.

3. Arau orokor gisa, eta profesionalen elkargoek antolaketarako autonomia baliatuz erabakitzen dutena galarazi gabe, zigor arloko prozeduretan abokatu bakar batek emanen du letradu-laguntza atxiloketatik hasita, halakorik bada, edo lehen agerralditik hasita, eta abokatu horrekin eginen dira prozedurako fase guztiak.

Zigor arloko prozeduran izendatutako letraduaren laguntza, aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat, pertsonala eta besterenezina izanen da. Aurrekoarekin eta Herritarrek Justiziaren aurrean dituzten Eskubideen Gutunean xedatutakoarekin bat, letraduak modu jarraituan eginen du zerbitzu hori, aurrez aurreko laguntza emanez atxiloketan eta ondorengo jarduketetan eta prozesuko egintza baterako zitatzen duten guztietan; herritarrei informazio zehatza eta osoa emanen die prozedurari eta ematen diren ebazpenei buruz; jurisdikzio-organoaren aurrean egin duen jarduketaren ondorioei buruzko aholkularitza emanen du berehala eta aurrez aurre, ahal duen heinean.

4. Abokatua defentsan ez aritzeko desenkusatzen bada eta elkargoak desenkusa onartzen badu, abokatuak gainerako prozedurak ere utzi beharko ditu eta beste letradu bat izendatuko da.

***5.-*** *Baldin eta, desenkusa bat tarteko, prozedura batean bi profesional edo gehiago aritzen badira, denei ordaindu beharko zaie.*

6. Familia arloko prozesuetan, epaiaren betearazpenak beti emanen du bidea dagokion moduluaren konputurako.

31. artikulua. Prestakuntza eta espezializazioa.

1. Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 25. artikuluko eskudantzien esparruan, eta abokatuen elkargoek txostena eman ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak prestakuntzaren arloan nahitaez bete beharreko baldintzak ezartzen ahalko ditu.

2. Txanda espezializatuetan –genero indarkeria, adingabeak, atzerritarrak, espetxea, edo sor daitezkeen gainerakoak– prestakuntza

espezializatua eskatuko da bai txanda horietan sartzeko, baita irauteko ere. Betiere, indarkeriaren arloko txanda espezializaturako prestakuntza Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin edo berdintasunaren arloko erakunde eskudunarekin adostuta zehaztuko da.

3. Justiziaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuko departamentuak ekarpena egiten ahalko du, aurrekontuko baliabideen arabera, txandetan eska daitekeen prestakuntza osagarria edo espezializatua finantzatzeko. Helburua da kalitate eta gaitasun profesionalaren maila egokia lortzea, defentsarako eta ordezkaritzarako eskubide konstituzionala bermatzeko adinakoa.

32. artikulua. Abokatuen eta prokuradoreen elkargoen arteko koordinazioa.

1. Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeak berekin ekarriko du abokatua eta, hala behar denean, prokuradorea izendatzea, salbu eta uko egiten zaienean Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 28. artikuluan azaltzen den moduan.

2. Profesionalen elkargoak elkarrekin koordinatuta arituko dira kasu bakoitzean behar diren izendapenak aldi berean egiteko; ezin izanen dute jardun aldi berean ofiziozko abokatu batek eta nahieran hautatutako prokuradore batek, edo alderantziz, salbu eta nahieran hautatutako profesionalak idatziz uko egiten dionean bere zerbitzu-sariak edo eskubideak jasotzeari, doako laguntza juridikorako eskubidearen titularraren aurrean eta inskribatuta dagoen elkargoaren aurrean.

3. Doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzeko eskaera egiten den unean, edo eskubidea aitortutakoan, interesdunek berariaz uko egiten ahalko diote ofiziozko profesionalen izendapenari, eta beren konfiantzako profesionalak nahieran izendatu. Uko egite horrek aldi berean izanen du eragina letradu-defentsan eta prozesuko ordezkaritzan.

4. Gerora izendapenari uko egiten bazaio –horrek ere aldi berean eragin behar die ofizioz izendatutako letradu-defentsari eta prozesuko ordezkaritzari–, horren berri eman beharko zaie berariaz Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari eta kasuan kasuko profesionalen elkargoei, eta ez dira galduko doako laguntza juridikorako eskubidea aitortzean onartutako gainerako prestazioak. Horrelakoetan, eskubidearen onuradunak itzuli egin beharko ditu izendatutako profesionalei funts publikoen kargura ordaindu zaizkien diru kopuruak.

5. Aurreko apartatuetan xedatutakoaren ondorioetarako, profesionalen elkargoek behar diren neurriak hartuko dituzte profesionalek zerbitzu-sariak jasotzeari uko egin izana elkarri eraginkortasunez jakinarazteko.

33. artikulua. Betebehar profesionalak.

1. Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 23. artikuluan ezarritakoarekin bat, doako justiziako zerbitzuetan inskribatutako profesionalak askatasunez eta irizpide askearekin arituko dira, arau

deontologikoei eta elkargoen doako justiziako zerbitzuen funtzionamendua zuzentzen duten arau eta gidalerroei loturik.

2. Ofizioz izendatutako letradu defendatzaileak eta prozesuko ordezkariak benetan eta eraginkortasunez beteko dituzte beren eginkizunak kasuan kasuko auzialdian prozedura amaitu arte, eta epaiaren betearazpenean ere arituko dira, baldin eta betearazpeneko jarduketa prozesalak auzialdian emandako ebazpen judizialaren ondoko bi urteetan egiten badira; hori guztia, ezertan eragotzi gabe uko egiteko edo desenkusatzeko legean aurreikusita dauden arrazoiek eragina izatea.

Aurreko paragrafoan aipatutako bi urteko epea iragan ondoren, egindako izendapenak iraungitzat emanen dira, eta beste izendapen batzuk eginen dira, beharrezkoa bada. Zilegi izanen da lehengo profesional berak izendatzea jarduketak ezagutzen dituztela-eta.

Egindako izendapenak iraungitzat joko dira, era berean, eskubidea aitortzeko behin betiko ebazpena eman eta bi urtera hasi gabe badago eskubide hori baliarazi nahi zen prozedura judiziala.

3. Letradu defendatzailea zigor arloko jurisdikzioan bakarrik desenkusatzen ahalko da defentsan ez aritzeko, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 31. artikuluko bigarren eta hirugarren paragrafoetan ezarritako moduan.

4. Atxilotuta edo espetxean dagoen pertsonari letradu-laguntzako zerbitzua emateko, ez da beharrezkoa izanen hark aurretik frogatzea ez duela baliabide ekonomikorik, baina laguntzen dion abokatuak doako laguntza juridikoa eskatzeko duen eskubideari buruzko informazioa eman beharko dio.

34. artikulua. Uzia defendaezina izatea.

1. Prozesu baterako izendatutako letradu defendatzaileari defendaezina iruditzen bazaio doako laguntza juridikoaren eskaera eragin duen uzia, izendatzen dutenetik 15 eguneko epean hala adierazi beharko dio Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari, behar bezala arrazoitutako txosten bat aurkeztuz, non azalduko baititu bere erabakiaren oinarri diren argudio juridikoak (uzia ebaluatzeko behar diren agirien falta dela-eta epe hori eten dadila eskatzen ahalko du). Ondoren izapideak eginen dira Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 32. artikulutik 35.era bitartekoetan ezarritakoari jarraituz.

2. Txandak antolatzeari begira, defendaezintasunari buruzko txostena egiten duen profesionalak izendapenaren aurretik zegokion lehentasun ordenari eutsiko dio, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 34. artikuluan azaltzen diren inguruabarrak gertatzen direnean.

3. Abokatuen elkargoek erregistro berezi bana edukiko dute, elkargokideek uzien defendaezintasuna formulatu ondoren izapidetzen diren espedienteak bertan jasotzeko.

35. artikulua. Kexak eta salaketak.

Doako laguntza juridikoari buruzko Estatuko araudiarekin bat etorriz, elkargoetako doako laguntza juridikoko zerbitzuen funtzionamenduari eta txandetako profesionalen jarduketei buruz kexak eta salaketak aurkezten ahalko dira profesionalen elkargoetan, Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordean edo Arartekoaren aurrean.

Elkargoak kexa bat jasotzen duenean, behar diren kudeaketak eginen ditu hura erkatzeko eta erasanak izan litezkeen eskubideak babesteko, diziplina arloko erantzukizunak bideratzeko, halakorik sortuz gero, eta, ondare-erreklamazioa planteatzen bada, erantzukizun zibilaren estaldura kontratatuta daukan aseguru entitateari hura helarazteko.

Ildo horretan hartutako erabakiak eta neurriak Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari jakinaraziko zaizkio.

36. artikulua. Ondare erantzukizuna.

1. Elkargoetako doako laguntza juridikoko zerbitzuen funtzionamenduak eragiten dituen kalteak administrazio publikoentzat ezarritako ondare-erantzukizuneko arau eta printzipio orokorren arabera ordainduko dira. Arau eta printzipio horiek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 16ko 40/2015 Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean daude.

2. Profesionalen elkargoek letradu defendatzaileen eta prozesuko ordezkarien behin-behineko izendapenei buruz hartzen dituzten erabakiak deuseztatzea edo aldatzea ez da berez profesionalen elkargoei erantzukizuna egozteko titulu. Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak erabaki dezake haiek deuseztatu edo aldatzea, ebazpena emateko unean, edo organo judizialek erabaki dezakete, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legearen 20. artikuluan aurreikusten diren aurkaratzeak ebaztean.

3. Kalte-ordainaren erreklamazioak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 16ko 40/2015 Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera izapidetuko dira, honako zehaztasun hauekin, betiere:

a) Interesdunaren eskaerak abiaraziko du kalte-ordaina erreklamatzeko prozedura. Eskabidea kasuan kasuko profesionalen elkargoari aurkeztu eta zuzenduko zaio.

b) Amaierako ebazpena, kalte-ordainaren erreklamazioa baiestekoa edo ezestekoa, kasuan kasuko elkargoko gobernu batzarrak emanen du.

c) Ebazpena Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari jakinarazi beharko zaio beti.

V. KAPITULUA

Doako laguntza juridikoko zerbitzuen konpentsazio ekonomikoa eta gainbegiratzea.

37. artikulua. Elkargoen zerbitzuengatiko konpentsazio ekonomikoa.

1. Justiziaren arloan eskumena duen departamentuak konpentsazio ekonomikoa emanen du, bere aurrekontu-zuzkiduren kargura, abokatuen eta prokuradoreen elkargoek doako laguntza juridikoko zerbitzuak ezarri eta emateagatik.

2. Konpentsazioaren zenbatekoa, funtsean, defentsa eta ordezkaritzako doako jarduketa profesionalak ordaintzeko erabiliko da, baita bitartekotza jarduketak ere, Doako Laguntza Juridikoari buruzko Legean aurreikusiak, baldin eta hartzaileek doako laguntza juridikorako eskubidearen berariazko aitorpena lortu badute. Doako laguntza juridikoa kudeatzearen ondorioz elkargoei sortutako gastuak ordaintzeko ere erabiliko da, bai eta, kasua bada, prozesu aurreko aholkularitza eta orientazio gastuak ordaintzeko ere.

3. Bidezko diren diru kopuruak ordaintzeko igorpenak hiru hilean behin eginen dira.

38. artikulua. Elkargoek doako laguntza juridikoa kudeatzearen ondoriozko azpiegitura gastuak.

1. Profesionalen elkargoen funtzionamendu eta azpiegitura gastuen zenbatekoa konpentsatzeko, foru dekretu honen III. eranskinean ezarritako moduluak aplikatuko zaizkio espediente bakoitzari.

2. Aurreko apartatuan ezarritakoari dagokionez, eta foru dekretu honen 11.6 artikuluan xedatutakoarekin bat, espediente nagusitzat joko da herritar batek doako justiziarako aurkeztutako lehen eskabidea. Han agertu beharko dira eskatzailearen datu pertsonalak, ekonomikoak eta, eskubidea zein prozesutan baliatu nahi duen, harenak.

Espediente lotutzat honako hauek joko dira: dagoeneko behin betiko kalifikazioa duen espediente bat dutenek gerora –sei hilabeteko epean– aurkeztutako bigarren eskabidea eta hurrengoak, jurisdikzioa edozein dela ere. Jada espediente nagusian jasota dauden agiriak ez dira berriz aurkeztu beharko, baldin eta eskatzailearen inguruabar pertsonaletan eta ekonomikoetan garrantzizko aldaketarik izan ez bada.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan bideratzen diren prozeduren eta gizarte arloko prozeduren berezitasuna dela-eta, gai horiei buruzko eskabideak espediente nagusi gisa izapidetuko dira beti, eta inoiz ez da sortuko espediente loturik.

3. Modulua espediente bakoitzarekin biderkatuta ateratzen den zenbatekoa sorraraziko da behin jasorik gelditzen denean espedientea osorik dagoela eta aplikazio informatiko partekatuan erregistratu dela Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak behin betiko ebatz dezan.

4. Hiruhileko bakoitza amaitu eta hurrengo hilabete naturalean, Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeko idazkariak Batzordean zenbat espediente oso sartu diren ziurtatuko du. Ziurtatze horren mende eta izan litezkeen akatsak zuzentzearen mende egonen da ordainketarako igorpena egitea.

5. Abokatuen eta prokuradoreen elkargoen betebeharra izanen da doako laguntza juridikoaren kudeaketak hiruhilekoan eragin dizkien azpiegitura gastuak dokumentu bidez justifikatzea, euskarri informatikoan. Diruz lagundutako zenbatekoak ez du inoiz gainditu behar benetan justifikatutako zenbatekoa; gainditzen badu, justifikatutako zenbatekora murriztuko da.

39. artikulua. Baremoaren araberako ordainketa.

1. Ofizioz izendatutako profesionalek zer motatako prozeduretan esku hartzen duten kontuan hartuz finkatutako konpentsazio oinarri ekonomikoak eta konpentsazio moduluak erabiliko dira profesional horiei ordaintzeko.

Konpentsazio ekonomikorako erreferentziako modulu eta oinarriak III. eranskinean jaso dira. Foru dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera aplikatuko dira.

2. Prozedura bat bereziki konplexutzat joko da baldin eta Nafarroako Gobernuko Justiziako zuzendari nagusiak hala onartzen eta baimentzen badu, kontuan izanik prozeduraren iraupena, zailtasuna, gaiak eskatzen duen dedikazioa, tartean diren pertsonak, jurisdikzio organoetako eginbide ugariak nahiz bestelako inguruabarrak –profesionalen elkargo eskudunak behar bezala justifikatuak eta salbuespenezkoak–.

Horrelako prozeduretan egindako jarduketen kalte-ordaina foru dekretu honen III. eranskinean konpentsazio ekonomikorako ezarritako oinarrien arabera zehaztuko da.

3. Hala ere, foru dekretu honen 17. artikuluan aipatzen diren gastuei aurre egiteko, eta 11. artikuluaren 7. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe, aurreko ekitaldian jasotako zenbatekoen % 2,5 ordainduko zaio profesionalen elkargo bakoitzari. Kalkulu horretan ez dira sartuko aurreko ekitaldian guardiako zerbitzuagatik jasotako diru kopuruak. Zenbateko hori ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan ordainduko da.

40. artikulua. Guardiako txandaren konpentsazio ekonomikoa.

1. Guardiako zerbitzuak ematen dituzten profesionalei dagokien kalte-ordaina foru dekretu honen III. eranskineko konpentsazio moduluen arabera zehaztuko da.

2. Profesionalen elkargoek elkargo-ziurtagirien bidez justifikatuko dituzte egindako zerbitzuak. Ziurtagiria bide telematikotik igorri beharko diote justiziaren arloan eskumena duen departamentuari, eta bertan jaso beharko dute, nahitaez, zerbitzu bakoitzean zenbat asistentzia egin diren egunean.

3. Profesionalen elkargoei ordaintzeko igorpenak hiru hilean behin eginen dira, gero profesionalen arteko banaketa egin dadin.

41. artikulua. Kalte-ordainaren sortzapena.

1. Ofizioz izendatutako profesionalek ofiziozko txandan jardutean kalte-ordaina sorraraziko dute, ehuneko hauen arabera:

a) Ehuneko 70: (Berriz jartzen da lehengo testua, baina artikuluetan, eta ez eranskin batean)

a.1) Prozedura zibiletan, familia arlokoak barne, demanda onartzen denean edo demandaren erantzuna formulatutzat ematen denean.

a.2) Zigor arloko prozeduretan, abokatuak edo prokuradoreak esku hartu behar duen jarduketa prozesalaren eskaera edo eginbidea aurkezten denean, edo ahozko judizioa hasten denean.

a.3) Errekurtsoetan, errekurtsoa formalizatzen denean.

a.4) Formalizatu gabeko kasazio-errekurtsoetan, errekurtsoa bideraezina izatearen arrazoiak azaltzen dituen txostena elkargoari ematen zaionean.

a.5) Gainerako prozeduretan, profesionalak esku hartu duela erakusten duen ebazpen judiziala emandakoan.

b) Ehuneko 30, auzialdiari amaiera ematen dion epai edo ebazpenaren bidez prozedura bukatutakoan.

2. Izendatutako profesionalek, halaber, auzialdiari amaiera ematen dion epai edo ebazpenaren bidez prozedura bukatutakoan sorrarazten ahalko dute ofiziozko txandan jarduteagatik dagokien kalte-ordain osoa.

3. Judizioz kanpoko transakzioetan eta uziaren defendaezintasunari buruzko txostenetan, interesdunak sinatutako dokumentua edo defendaezintasun txostena aurkezten denean sorraraziko da kalte-ordain osoa.

4. Atzerritarren Legeko prozeduretan, kalte-ordain osoa sorraraziko da prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren edo administrazio-egintzaren kopia aurkeztutakoan.

5. Bitartekotza prozesuetan, kalte-ordain osoa sorraraziko da prozesuari amaiera ematen dion dokumentua aurkezten denean, bitartekariak sinatuta.

6. Atzerritarren Legeko prozeduretan, kalte-ordain osoa sorraraziko da prozedurari amaiera ematen dion ebazpenaren edo administrazio-egintzaren kopia aurkeztutakoan.

7. Baldin eta, prozedura batean izendatutako lehen pertsonarentzako konpentsazioa jada sortuta dagoela, bigarren profesional bat izendatzen bada, profesionalen elkargoek beharrezkoak diren jarduketak eginen dituzte konpentsazio horren zenbatekoa bien artean birbanatzeko.

8. Guardiako txanda batean parte hartuz gero, guardia hori amaitutakoan sorraraziko da konpentsazio ekonomikoa.

42. artikulua. Agiri bidezko egiaztapena.

1. 41. artikuluaren lehen paragrafoan aipatzen den agiri bidezko egiaztapena egiteko, taloia edo justifikazio-zerrenda aurkeztu beharko da, II. eranskinean ezarritako ereduari jarraituz, eta agiri horrek sei hilabete iraunen du indarrean, prozedura judizial edo administratiboan emandako azken ebazpena helarazten edo jakinarazten den egunetik hasita.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea taloi edo justifikazio-zerrendarik aurkeztu gabe iragaten bada, kalte-ordainerako eskubidea galduko da kasuan kasuko prozedurari dagokionez.

2. Elkargoek emanen diete taloi edo justifikazio-zerrenda hori profesionalei. Agiri horretan eta beraren matrizean datu hauek jarriko dituzte: eskatzailea, espediente zenbakia, izendatutako profesionala eta izendapenaren data.

3. Izendatuek taloian jarri beharko dute zein diren organo judiziala, prozedura eta prozeduraren fasea. Horrela, kalte-ordaina sorrarazten duen jarduketa profesionala egin ondoren, elkargoak taloia balidatuko die.

4. Dokumentuak bide telematikotik aurkeztuko dira, doako laguntza juridikoa kudeatzeko aplikazio informatikoan sartuz.

43. artikulua. Ematen diren zerbitzuen egiaztapena eta kalitatea.

1. Elkargoek egiaztatu egin beharko dute profesionalek zerbitzuak ematen dituztela. Horretarako, aurreko artikuluan aipatzen den agiri bidezko justifikazioa erabiliko dute, eta gehienez bost urtez edukiko dute gordeta Administrazioaren eskura.

2. Egiaztapena egin ondoren, profesionalen elkargoek, bide telematikoetatik, Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari ziurtagiri bat bidaliko diote, zeinean zerrendatuko baitira aplikazio informatikoan hiruhileko bakoitzean konpentsazio ekonomikorako sartu diren espedienteak.

3. Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak, aplikazio informatiko beraren bitartez, elkargoek igorritako ziurtagiriak berrikusi eta, kasua bada, justifikatu eginen ditu.

4. Emandako zerbitzuaren kalitatea egiaztatze aldera, justiziaren arloan eskumena duen departamentuak ebaluazio sistemak ezartzen ahalko ditu erabiltzaileen gogobetetze maila ezagutzeko.

44. artikulua. Elkargoek abokatu eta prokuradoreen jarduketa profesionalak finantzatzeko konpentsazio ekonomikoa kudeatzea.

1. Justiziaren arloan eskumena duen departamentuak konpentsazio ekonomikoa emanen die abokatuen elkargoei eta Prokuradoreen Elkargoari, bakoitzari dagokion zenbatekoa, igorpen bakoitzaren aurreko hiruhilekoan egin eta egiaztatutako jarduketa profesionalen arabera eta izapidetutako espedienteen arabera.

Ondorio horietarako, profesionalen elkargoek, hiruhileko bakoitza amaitu eta hurrengo hilabete naturalean, foru dekretu honen 40. artikuluan aipatzen den ziurtagiria bidaliko diote justiziaren arloan

eskumena duen departamentuari, honako hauek erantsita: Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeko idazkariak emandako ziurtagiriak (aplikazio informatikotik jasoak), zeinetan azalduko baitira elkargo bakoitzak aurreko hiruhilekoan zehar egin eta justifikatutako jarduketen kopurua eta mota; halaber, elkargo bakoitzak izapidetutako espedienteen kopurua eta lotutako guztizko kostu ekonomikoa.

Ziurtagiri horiek aintzat hartuz, organo eskudunak jarraian hiru hilean behingo igorpenak eginen ditu, bidezkoak badira, ezertan eragotzi gabe bidezkoak izan daitezkeen erregularizazioak.

2. Profesionalen elkargoek kontu bereizi batean sartuko dituzte igorritako diru kopuruak, eta sortzen diren interesekin azpiegitura gastuak finantzatzen ahalko dituzte, doako laguntza juridikoa kudeatzeak elkargoari eragindakoak.

3. Administrazioarengandik kalte-ordaina jaso ondoren, profesionalen elkargoak ahalik eta bizkorren banatuko du berak justifikatutako jarduketak egin dituzten profesionalen artean.

## VI. KAPITULUA

## Doako peritu-laguntza

### 45. artikulua. Prestazioaren edukia.

1. Doako peritu-laguntzan perituek aholkua eta irizpena ematen dituzte prozeduretan, organo judizialak (ofizioz), fiskaltzak edo doako laguntza juridikorako eskubidea duen alderdiak edo auto judizial baten bidez kaudimengabe deklaratutako alderdiak hala eskatzen badute.

Kasu horietan, peritu-frogaren kostu ekonomikoa justiziaren arloan eskumena duen departamentuaren aurrekontu-zuzkiduren kargura ordainduko da.

2. Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen 6. artikuluaren seigarren apartatuan aipatzen diren pertsona eta entitateek emanen dute doako peritu-laguntza.

### 46. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioko perituak izendatzeko prozedura.

1. Organo judizialak justizia arloko eskumenak dituen departamentuari eskatuko dio peritu bat izenda dezala. Horretarako, foru dekretu honen IV-a) eranskineko eredua (peritua eskatzeko eredua), behar bezala betea, bidaliko dio.

2. Eskaera jaso ondoren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko departamentu, erakunde edo zerbitzu tekniko egokiari (hau da, peritu-frogarako behar diren ezagutzak dituzten langileak dituenari) igorriko zaio, izendapen-proposamena egin dezan.

3. Izendatutako pertsona identifikatzeko eta berarekin harremanetan jartzeko datuak agertu behar dira izendapen-proposamenean. Hamar egun naturaleko epean idazkaritza tekniko nagusiek justizia arloko eskumenak dituen departamentuari bidaliko diote proposamena, organo eskatzaileari helarazi diezaion.

4. Izendatutako pertsonak organo judizialak ezarritako toki eta egunean agertu beharko du kargua onartzeko. Peritu izendatu ondoren, prozesu-lege egokiek arautuko dute prozesuan izanen duen jarduna, alde batera utzita agintari judizialek hierarkiako nagusi hurrenari eskatzea prozesuko egintzetara joateko baimenak eta, halakorik bada, peritu-txostena garaiz egiteko behar diren lanaldien luzapenak eman diezazkion.

5. Premia larriko kasuetan, organo judizialak behar bezala arrazoiturik, aurreko atalean adierazitako epea erdira murriztuko da.

6. Peritu-txostena edo -irizpena egin eta eman dela egiaztatzeko, organo judizialak foru agindu honen IV-a) eranskineko ereduaren dagokion atala bete eta justizia arloko eskumenak dituen departamentuari bidaliko dio.

7. Eskaera jaso duen departamentuak izendapen-proposamena egiten ez badu, horren arrazoiak azaldu beharko ditu txosten batean, justizia arloko eskumenak dituen departamentuari igorriko diona. Horren berri emanen zaio organo eskatzaileari, foru dekretu honen 47. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

8. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko langileek ez dute zerbitzu-sariak jasotzeko eskubiderik izanen peritu-txostena edo -irizpena egiteagatik, ezertan ukatu gabe zerbitzuagatik bidezko kalte-ordainak jasotzeko eskubidea. Ordain horiek justizia arloko eskumenak dituen departamentuak ondorio horietarako gaitzen duen aurrekontuko partidaren kargura emanen dira.

Elkarlanaren ondorioz lanaldia luzatzen bada, atseden-denborarekin konpentsatuko da.

47. artikulua. Peritu pribatuak.

Peritu pribatuek emandako doako peritu-laguntza bidezkoa da kasu hauetan: kasuan kasuko arloan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren menpeko langile teknikorik ez dagoenean; izendapen-proposamena egitea ezinezkoa denean; edo organo judizialak peritu-jarduera jakin bat bidezkotzat jotzen duen ebazpen arrazoitua ematen duenean.

Doako peritu-laguntzaren xedeak zerikusia badu ondasun higiezinekin, ibilgailuekin, bitxiekin edo ondasun preziatuekin, peritu pribatuek emanen dute doako peritu-laguntza, betiere.

48. artikulua. Peritu-frogen kostu ekonomikoa.

1. Peritu gisa proposatutako pertsonak peritu-frogaren kostu ekonomikoaren aurreikuspena igorri beharko dio justiziaren arloan eskumena duen departamentuari, onets dezan. Horretarako, foru dekretu honen IV-b) eranskinetik hartuko du peritu-frogaren kostu ekonomikoaren aurreikuspenaren eredua.

2. Aurreko apartatuko agiria aurkezteko betebeharretik salbuetsita egonen dira guardiako epaitegiek izendatutako perituak.

3. Foru dekretu honen 49.1 artikuluan xedatutakoa galarazi gabe, baztertutzat joko dira foru dekretu honen IV-c) eranskineko konpentsazio ekonomikorako oinarriak gainditzen dituzten aurreikuspen ekonomikoak, irizpenaren xedea kontuan hartuta. Kasu horretan, 10 eguneko epe bat irekiko da konpentsaziorako oinarriekin bat egiten duen beste aurreikuspen bat aurkezteko. Epe horretan beste zenbatespen bat aurkezten ez bada, edo aurkezten dena berriro baztertzen bada, foru dekretu honen 50. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatuko da.

4. Era berean, baztertu eginen dira orduko 50 eurotik gorako prezioa duten aurreikuspen ekonomikoak, bai eta garestiegi gertatzen diren bestelakoak ere.

49. artikulua. Zerbitzu-sariak ordaintzeko prozedura.

1. Zerbitzu-sarien minuta kostu ekonomikoaren aurreikuspenarekin bat etorriko da. Aurreikuspen hori onartutzat joko da baldin eta igortzen denetik 20 eguneko epean organo eskudunak ez badio eragozpenik jartzen haren zenbatekoari. Hala ez bada, edo aurreikuspenik ez badago, ez dira izapidetuko aurkezten diren zerbitzu-sarien minutak, salbu eta foru dekretu honetan xedatutakoarekin bat egiten badute.

Artikulu honetan ezarritako epea erdira murriztuko da kostu ekonomikorako aurreikuspenak 150 euro gainditzen ez baditu.

2. Justiziaren arloan eskumena duen departamentuak ordainduko ditu peritu pribatuen zerbitzu-sariak, honako kasu hauetan izan ezik:

a) Prozesuari amaiera ematen dion epaian kostuei buruz erabakitzen denean doako laguntza juridikorako eskubidearen titularraren alde eginez.

b) Doako laguntza juridikorako eskubidearen titularrak auzia irabazi eta, epaian kostuei buruzko erabaki espresurik ez izanik, hark prozeduran lortutako mozkinak haren defentsaren kostuen zenbatekoa halako hiru baino gehiago badira.

3. Ezkontza-sozietatearen likidazioetan edo antzeko prozeduretan, bi pertsonak edo gehiagok parte hartzen badute eta ez badira guztiak doako laguntza juridikorako eskubidearen onuradun, prozeduran aritzen den kontulari banatzailearentzako edota perituarentzako kalte-ordaina kasuan kasuko moduluaren zati proportzionalaren arabera ordainduko da.

Guztiak badira doako justiziarako eskubidearen onuradun, eta peritu edo kontulari banatzaile bakarrak esku hartzen badu, modulua esku-hartze bakar gisa ordainduko da.

4. Prozesuari amaiera ematen dion epaian doako justiziarako eskubidearen titularra kostuak ordaintzera kondenatzen badute, hark ordaindu beharko ditu teknikari pribatuek egindako peritu-lanak, baldin eta prozesua amaitu ondoko hiru urteetan haren egoera ekonomikoak hobera egiten badu.

5. Justizia arloko eskumenak dituen departamentuak zerbitzu-sariak ordainduko ditu organo judizialak peritu-txostena edo -irizpena egin eta eman dela egiaztatu ondoren. Horretarako, foru dekretu honen IV-b) eranskineko eredu normalizatuan dagokion atala bete beharko da; perituak aurkeztu beharko du, dagokion faktura erantsita.

Ordainketa eginen da epaia eman ez bada ere. Horregatik, funts-horniketa egiteko eskaerak ez dira kontuan hartuko.

6. Ordainketa egin ondoren, justizia arloko eskumenak dituen departamentuak horren berri emanen dio organo judizialari, kostuen tasazioaren ondorioetarako.

50. artikulua. Konpentsaziorako oinarriak gainditzen dituzten gastuak baimentzea.

1. Salbuespenez, justizia arloko eskumenak dituen departamentuak baimena ematen ahal du konpentsazio ekonomikorako oinarriak (foru dekretu honen IV-c)eranskinean finkatuak) gainditzen dituzten peritu-lanak ordaintzeko, organo judizialak hala eskatuz gero, honako kasu hauetan:

a) Peritu-lanetan objektu asko baloratzen direnean eta balorazioa bereziki zaila denean.

b) Baliabide bereziki garestiak eta ezohikoak erabili behar direnean.

c) Irizpenaren xedea kontuan hartuta, irizpena bereziki zaila denean eta/edo irizpenaren xedea konpentsazio ekonomikorako modulu eta oinarrietan (IV-c) eranskinean ezarritakoak) sartzea ezinezkoa denean, ezta analogiaren bidez ere.

2. Kasu horietan, peritu gisa proposatutako pertsonak justizia arloko eskumenak dituen departamentuari bidali beharko dio peritu-frogaren kostu ekonomikoaren aurreikuspena egiteko eredua (foru dekretu honen IV-b) eranskinekoa), hark onets dezan, bai eta eskaera justifikatzen duen txostena ere, hau da, aurreko ataleko kasuetariko bat dela modu fede-emailean egiaztatzen duen txostena.

3. Gehiegizkoa delakoan aurreikuspena onesten ez bada, horren berri emanen zaio peritu gisa proposatutako pertsonari, 10 eguneko epean beste aurreikuspen ekonomiko bat aurkez dezan. Epe horretan beste aurreikuspen bat aurkezten ez bada, edo aurreikuspen berria ere baztertzen bada, horren berri emanen zaio organo judizialari, eta hark hiru aurrekontu eskatzen ahalko dizkie, aldi berean, txandaren arabera hala dagokien perituei.

Aurreikuspen ekonomikoak Justizia Zuzendaritza Nagusiari igorri ondoren, hark aurreikuspen onena hautatuko du, ez baditu gainditzen lehenago baztertu diren aurreikuspenak, eta horren berri emanen die organo judizialari eta aurrekontua aurkeztu duten profesionalei.

51. artikulua. Dirua itzultzea.

1. Bidezkoa izanen da peritu-lanengatik ordaindutako diru kopuruak itzultzea foru dekretu honen 49. artikuluaren 2. eta 3. apartatuetan azaltzen diren kasuetan.

2. Prozesuari amaiera ematen dion epaian kostuei buruzko adierazpena bada eta doako laguntza juridikorako eskubidearen titularraren aldekoa bada, ordaindu behar duen alderdiak peritu-lanen zenbatekoa ordaintzen duenean, kostuak tasatu eta arautzen dituen organo judizialeko idazkaritzak horren berri emanen dio Justizia Zuzendaritza Nagusiari eta ordainketa-agindu bat emanen du haren alde, perituari ordaindutako zenbatekoarekin.

Halaber, foru dekretu honen 49.2b) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, organo judizialak Justizia Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko dio zer mozkin lortu dituen auzian doako laguntza juridikorako eskubidearen titularrak.

3. Peritu-lanak ordaindu behar dituen alderdiak, edozein arrazoirengatik, zerbitzu-sarien minuta ordaintzen badio perituari, honek Nafarroako Gobernuak ordaindutako dirua itzuli beharko du, justizia arloko eskumenak dituen departamentuak emandako ordainketa-gutuna erabiliz.

52. artikulua. Perituen zerrendak.

1. Profesionalen elkargoek eta Prozedura Zibilari buruzko Legearen 341. artikuluan aipatzen diren gainerako entitateek urtero bidaliko diote justizia arloan eskumena duen departamentuari Nafarroan peritu gisa jarduteko prest dauden elkargokideen zerrenda orokorra, eta horren barnean zehaztuko da zein profesionalek heldu nahi dieten foru dekretu honen VI. kapituluan ezarritako baldintzei.

2. Profesionalen elkargoa ez duten edo profesionalen elkargoko kide izateko betebeharra ez duten jardueretan, organo judizialetan peritu gisa aritu nahi duten pertsonek peritu judizialen zerrendetan inskribatzeko eskaera bidaliko diote justizia arloko eskumenak dituen departamentuari, foru dekretu honen V-d) eranskinean ezarritako eredua erabiliz.

VII. KAPITULUA

Europar Batasunean egiten diren mugaz haraindiko auzietako doako laguntza juridikoa

53. artikulua. Europar Batasunean egiten diren mugaz haraindiko auzietako doako laguntza juridikoa.

1. Europar Batasunean egiten diren mugaz haraindiko auzietako doako laguntza juridikoa Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legearen VIII. kapituluari jarraituz arautuko da.

2. Administrazioak behar diren baliabideak jarriko ditu onuradunak aurkeztutako agiriak itzultzeko, organo judizialak edo

Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusiak eskatu baditu eta beharrezkoak badira auzia ebazteko.

I. eranskina

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

**Justizia Zuzendaritza Nagusia**

| Abokatuen elkargoa: | Esp. zk.: |
|---|---|

# DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA IZATEKO ESKABIDEA

Doako justiziarako eskubidea aitor dakidan behar diren legezko betebeharrak betetzen ditudala egiaztatzeko, aitortzen dut jarraian aipatzen ditudan datuak egiazkoak direla eta auzitan jardun nahi dudala soilik neure eskubideen alde.

## 1. Datu pertsonalak:

A) ESKATZAILEA:

**Pertsona mota:**

FISIKOA ☐
JURIDIKOA ☐

**Nortasun agiriaren zk.:** ☐

NANa ☐
IFK ☐
PASAPORTEA ☐
EGOITZA-TXARTELA ☐
NORTASUN AGIRIRIK GABE ☐

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Izena: | Lehen deitura: | | Bigarren deitura: | | | |
| Helbidea: | | | | Zk.: | Esk.: | Solairua: |
| PK | Herria: | Udalerria: | Probintzia: | | Herrialdea: | |
| Jaioteguna: | Lanbidea: | | Telefono zenbakia: | | Helbide elektronikoa: | |

**Sexua:**

GIZONEZKOA ☐
EMAKUMEZKOA ☐

**Nazionalitatea:**

ESPAINIARRA ☐
ATZERRITARRA ☐

**Egoera zibila:**

EZKONDUA ☐
EZKONGABEA ☐
ALARGUNA ☐
BANANDUA ☐
DIBORTZIATUA ☐
BIKOTE EGONKORRA ☐

B) FAMILIA UNITATEA:

**Ezkontidearen eta/edo bikote egonkorreko kidearen datuak:**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| NANa/IFZ/AIZ/Pasaportea | Izena: | Deiturak: | | | | |
| Helbidea: | | | | Zk.: | Esk.: | Solairua: |
| PK | Herria: | Udalerria: | Probintzia: | | Herrialdea: | |
| Jaioteguna: | Lanbidea: | | Telefono zenbakia: | | Helbide elektronikoa: | |

**Eskatzailearekin bizi diren seme-alaba adingabeak:**

| Izena | Lehen deitura | Bigarren deitura | Jaioteguna |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |
| | | | |
| | | | |

- Beltzez dauden laukitxoak interesdunak berak bete behar ditu
- Gorriz dauden laukitxoak abokatuen elkargoak bete behar ditu

## 2.- Familia unitatearen datu ekonomikoak:

Urteko diru-sarrera gordinak: ☐ €

Bestelako sarrerak eta ondasunak:

- ☐ Ondasun higiezinak
- ☐ Ondasun higigarriak
- ☐ Bestelakoak (ibilgailuak, akzioen dibidenduak)
- ☐ Errentamendutik datozen errentak

## 2.1.- Beste prestazio ekonomiko batzuk:

| | Interesduna | Urteko zenbateko gordina | Ezkontidea edo bikote egonkorreko kidea | Urteko zenbateko gordina |
|---|---|---|---|---|
| 2.1.1 Langabezia | | | | |
| 2.1.2 Erretiroa | | | | |
| 2.1.3 Ezintasuna | | | | |
| 2.1.4 Bestelakoak | | | | |

**BESTE OHAR BATZUK:**

## 3.- Beste datu interesgarri batzuk:

- ☐ Izendapen judiziala
- ☐ Beste batzuk

## 4.- Defendatu nahi den asmoa

- ☐ Tramitazioan
- ☐ Apelazioa
- ☐ Epaiaren betearazpena
- ☐ Hasi gabe

Izendatutako letradua:

Prokuradorea behar du: BAI ☐ EZ ☐

Arloa:

- ☐ Zibila
- ☐ Familia
- ☐ Administrazioarekikoa
- ☐ Atzerritartasuna
- ☐ Zigor arloa
- ☐ Gizartea
- ☐ ELZ (Emakumeari Laguntzeko Zerbitzua)
- ☐ Espetxe zaintza
- ☐ Bitartekotza

Organo mota: (1)

| Prozedura: | Prozedura zk.: |
|---|---|
| | |

## 5.- Aurkakoa:

(1) Defendatu beharreko asmoaren edukia
(2) Epaitegia hasitako espedienteetan eta dekanotza hasi gabeetan, lehen auzialdian

| Izena: | Lehen deitura: | | | | Bigarren deitura: |
|---|---|---|---|---|---|
| Helbidea: | Zk.: | Solairua: | PK: | Herria: | |

## ADOSTASUNA:

Berariaz baimena ematen diet abokatuen elkargoari eta Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeari, zerga, lan eta tributu arloetako datuak eta jabetza eta merkataritza erregistroetakoak bildu eta egiazta ditzaten, bai eta ebazteko behar diren informazio eta/edo agiri guztiak ere.

☐ Entitate horiei EZ badiezu baimenik eman nahi zure datuak eskuratzeko, markatu lauki hau, eta behar diren agiriak aurkeztu beharko dituzu auzitan jarduteko baliabide nahikorik ez duzula frogatzeko.

Behean ageri diren nire familia unitateko kideek ere (ezkontidea/bikote egonkorreko kidea) berariaz baimena ematen dute atal honetan adierazitako datuak kontsulta daitezen. Baimenik eman ezean, auzitan jarduteko baliabideen askitasunik eza egiaztatzeko behar diren agiriak aurkeztu beharko dituzu.

| **Aitortzailearen sinadura** | **Ezkontidearen/Bikote egonkorreko kidearen sinadura** |
|---|---|
| | |

## AITORTZEN DUT BADAKIDALA:

Eskabide honek **ez duela berez eteten** prozesuaren bilakaera, eta organo judizial edo administratiboari PERTSONALKI eskatu beharko niokeela eten nahiko banu igarotzen ari den epe bat horrek eragin liezadakeen defentsa-gabezia edo tramite-preklusioa saihestearren.

Nafarroako Doako Laguntza Juridikoaren Batzordeak **ezesten** badu nire asmoa, ordaindu beharko ditudala behin-behinekoz izendatu diren profesionalen esku-hartzeari dagozkion zerbitzu-sari eta eskubide ekonomikoak, halakorik baldin badago.

Datu garrantzitsuren bat isilduz gero, edo datu oker edo faltsuren bat emanez gero, eskubidearen aitorpena errebokatuko dela eta jasotako prestazioak ordaindu beharko ditudala, eta horrekin ez direla beste mailaren batean izan daitezkeen erantzukizunak saihestuko.

Prozesuari bukaera ematen dion epaian kostuak ordaintzeko kondena ezartzen badidate, aitortua izanik doako laguntza juridikorako eskubidea, nire defentsak eta aurkako alderdiarenak sortutako kostuak ordaintzera behartuta egonen naiz, prozesua bukatu eta ondoko hiru urteetan nire egoera ekonomikoak **hobera** egiten badu.

Eskubidearen abusua gehitu nahi bada…..dekretuko araudi berriaren arabera

..................................(e)n, (e)ko aren (e)(a)n .......

Interesdunaren sinadura

## 6.- Eransten den dokumentazioa:

- ☐ Nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen fotokopia
- ☐ Egoitza-txartelaren fotokopia, atzerritarra izanez gero
- ☐ PFEZaren eta Ondarearen aitorpenaren likidazioaren ziurtagiria, edo Sozietateen gaineko zergarena.
- ☐ Onura publikoaren deklarazioaren fotokopia (elkarteak) edo erregistroko inskripzioarena (fundazioak)
- ☐ Pertsona juridikoen ziurtagiria
- ☐ Kanpoko zeinuen ziurtagiria, bizilekua kokatua dagoen herriko udalak emana
- ☐ Familia-liburuaren fotokopia / Banantzeko edo dibortziatzeko epaia / Bikoteen erregistroko inskripzioa
- ☐ Erroldaren ziurtagiria eta elkarbizitzarena
- ☐ SEPEren ziurtagiria, langabezia-denborari eta jasotzen ari diren prestazioei buruzkoa
- ☐ Diru-sarrerei buruzko zinpeko adierazpena, beteta eta sinatuta (diru-sarrerarik ez badu)
- ☐ Ohiko etxebizitzaren errentamendu-kontratuaren fotokopia edo hileroko ordainagiriaren kopia
- ☐ Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuaren ziurtagiria, dagokionak NFKn dituen ondasun higiezinen jabetza-tituluei buruzkoa
- ☐ Dagokionak Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo dituen ondasun higiezinen jabetza-tituluen fotokopia
- ☐ Baloreen ziurtagiria: akzioak, inbertsio-funtsak, pentsio-funtsak, etab.
- ☐ Azken 2 urteetako lan-bizitza eta kotizazio-oinarriak
- ☐ Beste batzuk:

**GARRANTZITSUA**

**DOAKO JUSTIZIARAKO ESKABIDEA EZ DA TRAMITATUKO**
**EZ BADAGO BEHAR BEZALA BETETA**
**ETA DAGOKION DOKUMENTAZIOA ERANTSITA**

**DATUEN BABESA:**

Interesdunak emandako datu pertsonalak kasuan kasuko prozeduran edo jarduketan aurreikusitako helburuetarako baizik ez dira erabiliko.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez (2016/679 EB Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa), bai eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa ere (lege organiko hori da Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa), datuen lagatzaileak edozein unetan baliatzen ahalko ditu eskubideak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko edo ahazteko, adostasuna ezeztatzeko, tratamendua mugatzeko, datuak transferitzeko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko.

Harremanetarako: Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusia, Iratxeko Monasterioaren kalea 22-etxabea, 31011 IRUÑA

Helbide elektronikoa: dg.justicia@navarra.es
Telefonoa: 848 42 37 84

Informazio osagarria

## II. eranskina

## Abokatuentzako taloia

<table>
<tr>
<td>TALOI ZK.: 001 - TALOITEGIA: 00001<br>DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA<br>......................................(e)ko Abokatuen Elkargoa<br>Eskatzailea:<br>..........................................................<br>Abok. elk. esped. zk.:<br>...............................................<br>Izendatutako abokatua:<br>...........................................<br>Elkargokide zenbakia:<br>.............................................<br>Izendapenaren data:<br>....................................<br><br>(Elkargoaren zigilua)</td>
<td></td>
<td>TALOI ZK.: 001 - TALOITEGIA: 00001<br>DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA. Osat. esp. zk.:<br>.....................................<br>...........................................................................(e)ko Abokatuen Elkargoa<br>Eskatzailea: .......................................................... Abok. elk. esped. zk.: ..............<br>Izendatutako abokatua: ........................................... Elk. kide zk.: .............................<br>Epaitegia:<br>..............................................................................................................<br>Prozedura:<br>.................................................................................................<br>Adierazitako abokatuak esku hartu du aipatu prozeduran, eta jarraian azaltzen den prozesu-fasera iritsi da prozedura horretan (1).<br>(Elkargoaren zigilua)<br>(1) Beti azaldu behar da prozesu-fasea, ......./............ Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera</td>
</tr>
</table>

Izena:
..............................................................................................................................................................................
Adierazten dut auzia amaitu dela eta hau izan dela emaitza, dirulaguntzaren ondorioetarako:

-Kostuak ordaintzera kondenatu dute:

Doako laguntza juridikorako eskubidearen titularra.

Aurkako alderdia.

-Ez da berariazko erabakirik izan kostuei buruz.

Doako laguntza juridikorako eskubidearen titularrak irabazi du auzia, eta lortu dituen mozkinen zenbatekoak (.................................) haren defentsako kostuen zenbatekoa halako hiru gainditzen du.

Doako laguntza juridikorako eskubidearen titularrak irabazi du auzia, eta ez du mozkinik lortu, edo mozkinek ez dute gainditzen haren defentsako kostuen zenbatekoa halako hiru.

Aurkako alderdiak irabazi du auzia.

(SINADURA)

Prokuradoreentzako taloia

Prokuradorearen izena: ………………………………………………………………………………………………

Aldia: …………………………………..(e)tik ……………………………………… arte

| Espediente zk. | Prozedura | Organoa | Behin betiko kalifikazioa | ESKU-HARTZEAREN FASEA | | | | Egitate ekonomikoa | Eskatzailea |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | % 70 | % 30 | % 100 | % 75 | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | |

Aipatu prokuradoreak goian azaltzen diren prozeduretan eta fasean esku hartu du.

SINADURA    ELKARGOAREN ZIGILUA

III. eranskina

Konpentsazio ekonomikorako modulu eta oinarriak

| **ABOKATUAK** | TARIFA |
|---|---|
| **Zigor arloko jurisdikzioa** | |
| Zigor arloko prozedura bereziki konplexua | 1.800 |
| Zinpekoen epaimahaiaren bidezko prozedura | 650 |
| Prozedura sumarioa | 500 |
| Zigor arloko prozedura auzitegian | 450 |
| Ikustaldiko hirugarren egunetik aurrera, egun bakoitzeko | 60 |
| Auziari buruzko mila orritik gora, eta milako bakoitzeko | 40 |
| Zigor arloko prozedura epaitegian | 340 |
| Adingabeak | 300 |
| Espetxe zaintzako espedientea, izendapen judizialarekin | 120 |
| Espetxe arloko kexa espedienteak | 90 |
| Delitu arinak epaitzeko prozedura | 145 |
| Epaia berrikustea | 50 |
| Delituen epaitze azkarreko prozedura, adostasunarekin | 205 |
| Delituen epaitze azkarreko prozedura, adostasunik gabe | 250 |
| Delitu arinen epaitze azkarreko prozedura | 120 |
| Bisitak Nafarroatik kanpoko espetxeetara | 90 |
| Espetxeratzeko eta kanporatzeko baimena. Guardiako epaitegiak | 145 |
| Epaiaren betearazpena | |
| Zigor arloko betearazpena | 210 |
| | |
| **Jurisdikzio zibila** | |
| Epaiketa arrunta | 450 |
| Hitzezko epaiketa | 300 |
| Familia arloko prozesuak adostasunik gabe | 450 |
| Familia arloko betearazpenak | 180 |
| Familia arloko betearazpenak aurkaritzarekin | 260 |
| Behin-behineko neurriak | 180 |
| Babes agindurako agerraldia | 100 |
| Familia arloko prozesuak bi aldeen adostasunarekin | 300 |
| Borondatezko jurisdikzioko espedientea | 180 |
| Borondatezko jurisdikzioko espedientea aurkaritzarekin | 260 |
| Epaiketa monitorioa, **ondorengo auzirik gabe** | 120 |
| Kautelazko neurriak/Aurretiko eginbideak | 120 |
| Jarduketak, defendatzaile judizial gisa, epaileak eskaturik | 450 |
| Seme-alabatasuna, gurasotasuna, gaitasuna | 400 |
| Beste prozedura zibil batzuk | 300 |
| Pertsona fisiko baten konkurtsoa | 425 |

| | |
|---|---|
| Titulu judizialen betearazpena | 300 |
| **Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa** | |
| Laburtua | 250 |
| Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa | 350 |
| Atzerritartasunaren Legearen inguruko prozedura, administrazio bidean ezetsia | 100 |
| Atzerritartasunaren Legearen inguruko prozedura (auzibidean) | 350(+100) |
| Auzibidera jo aurreko erreklamazioa, asmoa onetsi eta prozedurari amaiera ematen diona | 100 |
| **Gizarte arloko jurisdikzioa** | |
| Prozedura osoa | **250** |
| | |
| Jurisdikzio militarra | |
| Prozedura militarra | 200 |
| | |
| Errekurtsoak | |
| **Apelazioko errekurtsoa. Delituak** | **175** |
| **Apelazioko errekurtsoa. Arlo zibila** | **175** |
| **Apelazioko errekurtsoa. Delitu arinak** | **120** |
| **Apelazioko errekurtsoa. Auzibidea** | **175** |
| **Erreguko errekurtsoa** | **175** |
| Kasazioko errekurtsoa | 320 |
| Babes errekurtsoa | 320 |
| | |
| Joan-etorriak | 40 |
| | |
| Prozesutik kanpoko jarduketak | |
| Epaitegietatik kanpoko transakzioak | Prozeduraren zenbatekoaren % 75 |
| Asmoa defendaezina dela dioen txosten arrazoitua | 80 |
| Bitartekotza prozesuak | |
| Bitartekotza prozesuak, gehienez 7 saio | 66 €/saio/bitartekari |
| | |
| Guardiako zerbitzua Iruñean | |
| Guardia: atxilotuak | 310 |
| Guardia: atxilotuentzako errefortzua | 210 |
| Guardia: epaiketa azkarrak | 190 |
| Guardia txikiak | 220 |
| Guardia: ELZ Iruña-Agoitz | 310 |
| Guardia Agoitzen | 150 |
| Guardia: atzerritarrak | 290 |
| Guardia: espetxea | 190 |
| Guardiako zerbitzua Tuteran | |
| Guardia: atxilotuak eta epaiketa azkarrak | 250 |
| Guardia: errefortzua | 125 |
| Guardia: atzerritarrak | 60 |
| Guardia: ELZ | 165 |

| | | |
|---|---|---|
| Guardiako zerbitzua Lizarran | | |
| | Guardia: atxilotuak eta epaiketa azkarrak | 225 |
| | Guardia: ELZ | 140 |
| Guardiako zerbitzua Tafallan | | |
| | Guardia: atxilotuak eta epaiketa azkarrak | 210 |
| | Guardia: ELZ | 130 |
| **Elkargoaren funtzionamendu eta kudeaketa gastuak** | | |
| Izapidetutako espediente nagusi bakoitzeko | | 38 |
| Izapidetutako espediente lotu bakoitzeko | | 22 |

| **PROKURADOREAK** | | Tarifa |
|---|---|---|
| Zigor arloko jurisdikzioa | | |
| | Zigor arlokoa | 48 |
| | Zigor arlokoa, bereziki konplexua | 200 |
| Jurisdikzio zibila | | |
| | Epaiketa arrunta | 48 |
| | Hitzezko epaiketa (prokuradorearen parte-hartzea beharrezkoa den kasuetan) | 39 |
| | Hitzezko epaiketa, demanda 901,52 eurotik gorakoa ez denean eta PZLren 250. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren gaiak ukitzen ez dituenean (kasu horretan, epaile-ebazpena beharrezkoa da abokatuaren laguntza jasotzeko premiari buruz) | 33 |
| | Behin-behineko neurriak | 29 |
| | Adostasun gabeko neurrien aldaketa | 43 |
| | Familia, bi aldeen adostasuna | 33 |
| | Familia arloko prozedura osoa (deuseztatzea barne) | 48 |
| Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa | | |
| | Laburtua | 33 |
| | Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa | 47 |
| Errekurtsoak | | |
| | Apelazioak eta beste errekurtso batzuk | 33 |
| Epaiaren betearazpena | | |
| | Zigor arloko betearazpena | 33 |
| | Familia arloko betearazpena | 28 |
| Prozesutik kanpoko jarduketak | | |
| | Epaitegietatik kanpoko transakzioak | Prozedura-ren zenbatekoaren % 75 |
| Asmoaren defendaezintasuna, prokuradore batek esku hartu duenean | | 23 |
| Beste prozedura batzuk | | |
| | Beste prozedura batzuk | 29 |
| **Elkargoaren funtzionamendu eta kudeaketa gastuak** | | |
| Izapidetutako espediente nagusi bakoitzeko | | 8 |
| Izapidetutako espediente lotu bakoitzeko | | 6 |

IV-a ERANSKINA

# PERITU BAT ESKATZEA

| JGZ Erref. | ORGANO ESKATZAILEA: | | | TELEFONOA: | FAXA: |
|---|---|---|---|---|---|
| HELBIDEA: | Zk.: | SOLAIRUA: | HERRIA | | POSTA KODEA: **31011** |
| ESKAERAREN ARDURADUNAREN IZEN-DEITURAK | | | KARGUA: | | |

## ORGANO JUDIZIAL ESKATZAILEAK BETE BEHARREKOA:

| PROZEDURA ZK.: | ESKAERAREN EGUNA: |
|---|---|
| ESKATZEN DEN LANBIDE-ESPEZIALITATEA: | |

PERITU-FROGA NORK ESKATZEN DUEN:

- ☐ OFIZIOZ
- ☐ FISKALTZA
- ☐ KAUDIMENGABE DEKLARATUTAKO PERTSONA (AUTOA ERANTSI BEHAR DA)
- ☐ DOAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ESKUBIDEAREN TITULARRA (IZENA AIPATU BEHAR DA)

.........................................................................................................................................................................

PERITU-FROGAREN XEDEA:

ESKAERA PREMIA LARRIKOA DA:

- ☐ BAI (behar bezala arrazoitu behar da txosten bidez: epea erdira laburtzen da)
- ☐ EZ

| ORGANO JUDIZIAL ESKATZAILEAREN ZIGILUA | ESKAERA HONAKO HONI BIDALI BEHAR ZAIO POSTAZ:<br><br>**JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUA**<br>JUSTIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>Iratxeko Monasterioa, 22<br>31011 – Iruña<br><br>**POSTA ELEKTRONIKOZ: tipjusticia@navarra.es** |
|---|---|

## JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUAK BETE BEHARREKOA:

- ☐ Ez dago langile espezialista egokirik Administrazioan.
- ☐ Ez dago izendapen-proposamenik.
- ☐ Izendapen-proposamena:

| NANa | DEITURAK ETA IZENA |
|---|---|
| HARREMANETARAKO TELEFONOA | HELBIDE ELEKTRONIKOA |

## PERITU-IRIZPENA EGIN DELA EGIAZTATZEA:

| **Organo judizialak bete beharrekoa, peritu-froga egin ondoren, Justiziako Gizarte Zerbitzuari bidaltzeko** | ORGANO JUDIZIALAREN ZIGILUA |
|---|---|
| PERITU-IRIZPENA JASO ZEN EGUNA | |

**ESKAERA HONI BURUZKO ARGIBIDEAK NAHI IZANEZ GERO, DEITU TELEFONO HAUETARA: 848 427214 / 848 427192**

**DATUEN BABESA:**

Interesdunak emandako datu pertsonalak kasuan kasuko prozeduran edo jarduketan aurreikusitako helburuetarako baizik ez dira erabiliko.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez (2016/679 EB Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa), bai eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa ere (lege organiko hori da Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa), datuen lagatzaileak edozein unetan baliatzen ahalko ditu eskubideak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko edo ahazteko, adostasuna ezeztatzeko, tratamendua mugatzeko, datuak transferitzeko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko.

Harremanetarako: Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusia: Iratxeko Monasterioaren kalea 22-etxabea, 31011 IRUÑA. Helbide elektronikoa: dg.justicia@navarra.es.
Telefono zenbakia: 848 42 37 84
Informazio osagarria

IV-b1) ERANSKINA

# PERITU-FROGAREN KOSTU EKONOMIKOAREN AURREIKUSPENA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| PERITUAREN IZEN-DEITURAK | | | NANa/IFZ | |
| HELBIDEA: | Zk.: | SOLAIRUA: | HERRIA | POSTA KODEA: |
| HELBIDE ELEKTRONIKOA: | | | TELEFONOA: | FAXA: |
| PERITU-FROGA ESKATZEN DUEN ORGANOA | | | | |

PERITU-FROGA NORK ESKATZEN DUEN:

- ☐ OFIZIOZ
- ☐ FISKALTZA
- ☐ KAUDIMENGABE DEKLARATUTAKO PERTSONA (AUTOA ERANTSI BEHAR DA)
- ☐ DOAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ESKUBIDEAREN TITULARRA (IZENA AIPATU BEHAR DA)

.............................................................................................................................................................................

## IRIZPENAREN XEDEA

| | |
|---|---|
| ☐ Ondasun higigarriak, ibilgailuak eta bitxiak | ☐ Ondasun higiezinek jasotako kalteak |
| ☐ Industriako makineria | ☐ Antigoalekoak eta artelanak |
| ☐ Elektronika, informatika eta telekomunikazioak | ☐ Auditoretza eta enpresa-balorazioak |
| ☐ Mediku eta psikologoen txostenak eta osasun-txostenak | ☐ Egiaztapen topografikoak, eraikuntza |
| ☐ Kaligrafiako peritu-frogak | ☐ Ondasun higiezinen balorazioak, hipotekarioak |
| ☐ Ingurumen arlokoak | ☐ Gizarte arloko betearazpenetan erabakitako peritu-frogak |
| ☐ Kontulari banatzailea | ☐ Bestelakoak (deskribatu laburki) |

## AURREKONTUA:

| | |
|---|---|
| Aurreikusitako denbora | |
| Kostuaren balorazioa (kostua orduko) | |
| Prezioa | |
| BEZa | |
| Zerbitzu-sarien prezioa, guztira | |
| PFEZaren atxikipena (% ———), BEZik gabeko zerbitzu-sarien gainean | |
| Zerbitzu-sari garbiak, guztira | |

| DATA ETA PERITU JUDIZIALAREN SINADURA | ESKAERA HONAKO HONI BIDALI BEHAR ZAIO POSTAZ: |
|---|---|
| | **JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUA**<br>JUSTIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>Iratxeko Monasterioa, 22<br>31011 - Iruña<br><br>**POSTA ELEKTRONIKOZ: tipjusticia@navarra.es** |

## JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUAK BETE BEHARREKOA:

| | |
|---|---|
| ☐ Egin bedi peritu-froga aurreikuspen horren arabera<br>☐ Baztertu egiten da.<br><br>DATA: | JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUAREN ZIGILUA |

## PERITU-IRIZPENA EGIN DELA EGIAZTATZEA:

| | |
|---|---|
| **Organo judizialak bete beharrekoa, peritu-froga egin ondoren, Justiziako Gizarte Zerbitzuari bidaltzeko, dagokion fakturari erantsita** | ORGANO JUDIZIALAREN ZIGILUA |
| PERITU-IRIZPENA JASO ZEN EGUNA | |

**ESKAERA HONI BURUZKO ARGIBIDEAK NAHI IZANEZ GERO, DEITU TELEFONO HAUETARA: 848 427214 / 848 427192**

**DATUEN BABESA:**

Interesdunak emandako datu pertsonalak kasuan kasuko prozeduran edo jarduketan aurreikusitako helburuetarako baizik ez dira erabiliko.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez (2016/679 EB Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa), bai eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa ere (lege organiko hori da Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa), datuen lagatzaileak edozein unetan baliatzen ahalko ditu
eskubideak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko edo ahazteko, adostasuna ezeztatzeko, tratamendua mugatzeko, datuak transferitzeko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko.

Harremanetarako: Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusia: Iratxeko Monasterioaren kalea 22-etxabea, 31011 IRUÑA. Helbide elektronikoa: dg.justicia@navarra.es. Telefono zenbakia: 848 42 37 84

**Informazio osagarria**

IV-b2) ERANSKINA

# PROBA DIAGNOSTIKOEKIKO PERITU-FROGAREN KOSTU EKONOMIKOAREN AURREIKUSPENA

| PERITUAREN IZEN-DEITURAK | | | | NANa/IFZ |
|---|---|---|---|---|
| HELBIDEA: | Zk.: | SOLAIRUA: | HERRIA | POSTA KODEA: |
| HELBIDE ELEKTRONIKOA: | | | TELEFONOA: | FAXA: |
| PERITU-FROGA ESKATZEN DUEN ORGANOA | | | PROZEDURA ZK.: | |

PERITU-FROGA NORK ESKATZEN DUEN:

- ☐ OFIZIOZ
- ☐ FISKALTZA
- ☐ KAUDIMENGABE DEKLARATUTAKO PERTSONA (AUTOA ERANTSI BEHAR DA)
- ☐ DOAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ESKUBIDEAREN TITULARRA (IZENA AIPATU BEHAR DA)
  ..............................................................................................................................

**IRIZPENAREN XEDEA**

| | |
|---|---|
| ☐ Ondasun higigarriak, ibilgailuak eta bitxiak | ☐ Ondasun higiezinek jasotako kalteak |
| ☐ Industriako makineria | ☐ Antigoalekoak eta artelanak |
| ☐ Elektronika, informatika eta telekomunikazioak | ☐ Auditoretza eta enpresa-balorazioak |
| ☐ Mediku eta psikologoen txostenak eta osasun-txostenak | ☐ Egiaztapen topografikoak, eraikuntza |
| ☐ Kaligrafiako peritu-frogak | ☐ Ondasun higiezinen balorazioak, hipotekarioak |
| ☐ Ingurumen arlokoak | ☐ Gizarte arloko betearazpenetan erabakitako peritu-frogak |
| ☐ Kontulari banatzailea | ☐ Bestelakoak (deskribatu laburki) |

**AURREKONTUA:**

| | |
|---|---|
| Aurreikusitako denbora | |
| Kostuaren balorazioa (kostua orduko) | |
| Proba diagnostikoen kostua | |
| | |
| | |
| Prezioa | |
| BEZa | |
| Zerbitzu-sarien prezioa, guztira | |
| PFEZaren atxikipena (% ———), BEZik gabeko zerbitzu-sarien gainean | |
| Zerbitzu-sari garbiak, guztira | |

| DATA ETA PERITU JUDIZIALAREN SINADURA | ESKAERA HONAKO HONI BIDALI BEHAR ZAIO POSTAZ: |
|---|---|
| | **JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUA**<br>JUSTIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>Iratxeko Monasterioa, 22<br>31011 - Iruña<br><br>**HELBIDE ELEKTRONIKOA:**<br>**tipjusticia@navarra.es** |

**JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUAK BETE BEHARREKOA:**

| | |
|---|---|
| ☐ Egin bedi peritu-froga aurreikuspen horren arabera | JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUAREN ZIGILUA |

| | |
|---|---|
| ☐ Baztertu egiten da.<br><br>DATA: | |
| **PERITU-IRIZPENA EGIN DELA EGIAZTATZEA:** | |
| **Organo judizialak bete beharrekoa, peritu-froga egin ondoren, Justiziako Gizarte Zerbitzuari bidaltzeko, dagokion fakturari erantsita** | ORGANO JUDIZIALAREN ZIGILUA |
| PERITU-IRIZPENA JASO ZEN EGUNA | |
| **ESKAERA HONI BURUZKO ARGIBIDEAK NAHI IZANEZ GERO, DEITU TELEFONO HAUETARA: 848 427214 / 848 427192** | |

**DATUEN BABESA:**

Interesdunak emandako datu pertsonalak kasuan kasuko prozeduran edo jarduketan aurreikusitako helburuetarako baizik ez dira erabiliko.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez (2016/679 EB Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa), bai eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa ere (lege organiko hori da Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa), datuen lagatzaileak edozein unetan baliatzen ahalko ditu
eskubideak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko edo ahazteko, adostasuna ezeztatzeko, tratamendua mugatzeko, datuak transferitzeko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko.

Harremanetarako: Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusia: Iratxeko Monasterioaren kalea 22-etxabea, 31011 IRUÑA. Helbide elektronikoa: dg.justicia@navarra.es. Telefono zenbakia: 848 42 37 84

**Informazio osagarria**

IV-b3) ERANSKINA

# PERITU-FROGA PSIKOLOGIKOAREN KOSTU EKONOMIKOAREN AURREIKUSPENA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| PERITUAREN IZEN-DEITURAK | | | NANa/IFZ | |
| HELBIDEA: | Zk.: | SOLAIRUA: | HERRIA | POSTA KODEA: |
| HELBIDE ELEKTRONIKOA: | | | TELEFONOA: | FAXA: |
| PERITU-FROGA ESKATZEN DUEN ORGANOA | | | PROZEDURA ZK.: | |
| PERITU-FROGA NORK ESKATZEN DUEN:<br><br>☐ INDARKERIAREN ARLOKO ……………………………(E)KO ……… ZENBAKIKO EPAITEGIA | | | | |

| **IRIZPENAREN XEDEA** | |
|---|---|
| ☐ Peritu-lana erasotzailearekin eta biktimarekin | 600 euro |
| ☐ Peritu-lana biktimarekin edo erasotzailearekin | 450 euro |

| **AURREKONTUA:** | |
|---|---|
| Prezioa | |
| BEZa | |
| Zerbitzu-sarien prezioa, guztira | |
| PFEZaren atxikipena (% ———), BEZik gabeko zerbitzu-sarien gainean | |
| Zerbitzu-sari garbiak, guztira | |

| | |
|---|---|
| DATA ETA PERITU JUDIZIALAREN SINADURA | ESKAERA HONAKO HONI BIDALI BEHAR ZAIO POSTAZ:<br><br>**JUSTIZIAKO GIZARTE ZERBITZUA**<br>JUSTIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIA<br>Iratxeko Monasterioa, 22<br>31011 - Iruña<br><br>**POSTA ELEKTRONIKOZ: tipjusticia@navarra.es** |
| **PERITU-IRIZPENA EGIN DELA EGIAZTATZEA:** | |
| **Organo judizialak bete beharrekoa, peritu-froga egin ondoren, Justiziako Gizarte Zerbitzuari bidaltzeko, dagokion fakturari erantsita** | ORGANO JUDIZIALAREN ZIGILUA |

| PERITU-IRIZPENA JASO ZEN EGUNA | |
|---|---|
| *Prozesua bertan behera uztearen ondorioz txostenik eman behar ez denean, adierazi zein kasu den: | |
| ☐ Saioa egindakoan prozesua bertan behera uztea | 150 euro |
| ☐ Saiorik egin gabe prozesua bertan behera uztea | 50 euro |
| **ESKAERA HONI BURUZKO ARGIBIDEAK NAHI IZANEZ GERO, DEITU TELEFONO HAUETARA: 848 427214 / 848 427192** | |

**DATUEN BABESA:**

Interesdunak emandako datu pertsonalak kasuan kasuko prozeduran edo jarduketan aurreikusitako helburuetarako baizik ez dira erabiliko.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez (2016/679 EB Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa), bai eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa ere (lege organiko hori da Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa), datuen lagatzaileak edozein unetan baliatzen ahalko ditu
eskubideak datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko edo ahazteko, adostasuna ezeztatzeko, tratamendua mugatzeko, datuak transferitzeko eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko.

Harremanetarako: Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusia: Iratxeko Monasterioaren kalea 22-etxabea, 31011 IRUÑA. Helbide elektronikoa: dg.justicia@navarra.es.
Telefono zenbakia: 848 42 37 84

**Informazio osagarria**

## IV-c ERANSKINA

Konpentsazio ekonomikorako modulu eta oinarriak.

| | |
|---|---|
| Ondasun higigarriak, ibilgailuak, bitxiak eta objektu preziatuak | 200 € |
| Ondasun higiezinek jasotako kalteak | 500 € |
| Industriako makineria | 500 € |
| Antigoalekoak eta artelanak | 400 € |
| Elektronika, informatika eta telekomunikazioak | 500 € |
| Auditoretza eta enpresa-balorazioak | 600 € |
| Mediku eta psikologoen txostenak eta osasun-profesionalen txostenak | 600 € |
| Egiaztapen topografikoak, eraikuntza | 500 € |
| Kaligrafiako peritu-frogak | 500 € |
| Ondasun higiezinen balorazioak, hipotekarioak | 400 € |
| Ingurumen arlokoak | 500 € |
| Gizarte arloko betearazpenetan erabakitako peritu-frogak | 300 € |
| Kontulari banatzailea | 400 € |

## IV-D) ERANSKINA

# PERITU JUDIZIALEN ZERRENDETAN INSKRIBATZEKO ESKABIDEA

| ESKATZAILEA | | | | |
|---|---|---|---|---|
| IZEN-DEITURAK | | | | NANa/IFZ |
| HELBIDEA: | Zk.: | SOLAIRUA: | HERRIA | POSTA KODEA: |
| HELBIDE ELEKTRONIKOA: | | | TELEFONOA: | FAXA: |

| TITULAZIOA |
|---|
| |
| **FORMAKUNTZA ESPEZIFIKOA** |

| |
|---|
| |
| **NAHI DUEN ESPEZIALITATEA EDO JARDUERA** |
| |
| **JARDUERA EREMUA** |

| | | |
|---|---|---|
| ☐ Iruña | ☐ Tutera | ☐ Tafalla |
| ☐ Lizarra | ☐ Agoitz | ☐ Denak |

| **ZINPEKO AITORPENA** |
|---|
| Eskatzaileak bere erantzukizunpean aitortzen du ez duela karguan aritzeko ezgaitasun, bateraezintasun edo desgaikuntzarik. |

Iruñean, .........(e)ko ...............................aren ........(e)(a)n

Sinadura